

GAIA: KANPOKO INDARKERIA IRAKASLEENGAN • ESPERIENTZIA:  
HAURDUN DAUDEN AMAK HAUR ESKOLAN • EKARPENA: KAMISHIBAI  
IPUINAK • GALDEIDAZUE: IÑAKI PIKABEA • OLATZ BEOBIDE

hh  
hik hasi

108

5 EURO • 2006KO MAIATZA EUSKAL HEZIKETARAKO ALDIZKARIA

*ELKARRIZKETA*

Pedro  
Miguel  
Etxenike

“Teknologia ingurumena behartzen ari da, guri egokitzeko, eta ondorioz, hondatzen”






2005eko "LIZARDI SARIA"  
Lionel eta Kris anai-arrebak harrera-etxe  
batean bizi dira, aita burutik ondo ez  
dagoelako; anai-arreba horien amets eta  
desioen berri ematen digu liburu honek.




Kea airean bezala  
Imanol Azkue  
marrazkilaria: Eider Eibar



Alimaleko fantasiak  
Antton Dueso  
marrazkilaria: I. Martiarena "Mattin"

Anne Mari antzara maitemindurik...  
Joxemari astoa hegan ikasi nahita...  
Lau ipuin fantasiak eta umorez  
karga-karga eginda.



Amaren titi-xorroak  
Joxantonio Ormazabal  
marrazkilaria: Jesus Lucas

Ipuinak enbor  
haikuak hosto  
poemak sustrai  
eta marrazkiak lore.



Portueltxe 88 bis,  
20018 DONOSTIA  
Tel.: 943 311821  
e-posta: ikastetxeak@elkar.com

# aurkibidea



8  
gaia

## KANPOKO INDARKERIA IRAKASLEENGAN

Gero eta gehiago entzuten da irakasleek gurasoen edo ikasleen aldetik jasotzen dituzten erasoer buruz. Kanpoko indarkeria deritzo eta lan arrisku gisa izendatuta dago. Indarkeria mota horren ezaugarriak, garrantzia, ondorioak, irakasleen kezka, esku hartzeko bideak eta iritziak bildu dira gai honetan.



16  
elkarrizketa

## PEDRO MIGUEL ETXENIKE

Zientzialari moduan esateko asko du zientzia eta teknologiaren gainean. EHUko katedradun eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu ohi gisa, hezkuntzari buruzko iritzi sendoak ditu. Eta hiritar moduan ere bai.

5 editoriala

6 kronika

8 gaia

KANPOKO INDARKERIA IRAKASLEENGAN

16 elkarrizketa

PEDRO MIGUEL ETXENIKE

24 esperientzia

One Europe, variety of cultures

Ingelesa hobetzen Etorkizuna ikastolan

27 esperientzia

Haurdun dauden amak haur eskolan

Usurbilgo esperientzia

30 ekarpena

Kamishibai: Japoniako ipuinak... euskaraz

Josu Jimenez

32 galdeidazue

Iñaki Pikabea

35 berriak

41 ...goza nazazu gehiago!

Ez da aski euskaraz irakastea, euskaraz aritzeko bideak jarri behar dira

Helena Baraibar eta Kristina Boan

42 Atzeko atetik


Olatz Beobide

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 . Fax: 943/ 372 154; www.hikhasi.com;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690 Erredakzio burua: Ainhoa Azpiroz. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Miren Guilló. Erredakzio batzordea: Mikel Estonba, Mari Karmen Irastorza, Kristina Mardaraz, Josi Oiarbide, Fito Rodriguez, Maite Saenz, Xabier Sarasua eta Arantxa Urbe. Aholkulariak: Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Juanjo Otaño, Matilde Sainz eta Pruden Sodupe. Administrazioa: Arantxa Goiburua. Diseinua: TRAM•Grafik. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANtza S.A.L. Azaleko irudia: Pedro Miguel Etxenike (Hik Hasi). Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2006-IV-6). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitzke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



# Harpidetza orria



**hik hasi**  
zure parte-hartzea  
ezinbestekoa du,  
**harpide zaitetz!**  
50 euro urtean

Prezio horren barruan  
10 aldizkari, ale monografikoak  
eta Euskal Herriko baliabide  
pedagogikoen gida.  
Horrez gain, prezio bereziak  
Udako Topaketetan eta  
argitararitzen ditugun  
gainontzeko materialetan

**hik hasi**ren harpidedun izan nahi dut, urtean 10 ale eta atera daitezkeen ale bereziak etxean jasoz

Izena	1. Deitura
2. Deitura	Telefonoa
Helbidea	Posta Kodea
Herria	Herrialdea
Lantokia	Lantokiaren herria
IFZ-NAN	Posta elektronikoa

<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>	<input type="text"/>
----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------	----------------------

Entitatea

Sukurtsala

K.D.

Zenbakia

Sinadura

**hik hasi** Euskal heziketarako aldizkaria  
Errekalde hiribidea, 59 Aguila eraikina, 1. solairua  
20018 DONOSTIA. GIPUZKOA  
Tel: 943/37 14 08 Faxa: 943/37 21 54

HARPIDETZA SARIAK  
(BEZ barne) 50 euro

# editoriala maiatza

## *Kataluniako Hezkuntza Itun Nazionala: eskola guztientzako onura*



**Hezkuntzari garrantzia ematea ez da nahikoa; inbertitzea eskatzen du.**

**Katalunian hori egitera doaz: denen arteko hezkuntza zerbitzua hobetzeko, denen artean eta denentzat, neurriak hartu, bitartekoak jarri eta egindakoa ebaluatzerara doaz.**

Hezkuntza eragileen eta administrazioaren artean sinatu berri dute Kataluniako Hezkuntza Itun Nazionala.

Helburu nagusia aurreikusi dituzten oinarriko hiru beharrei erantzun egokia ematea da:

- Kohesio soziala eta aukera berdintasuna.

- Heziketa etikoa eta hiritarra.

- Kultura eta jakintza zientifikoa transmititzea, gaitasunak lantzea eta pertsona autonomoak izaten laguntzea, lanaren bidez, jendartean modu inklusiboan eskubide osoz parte hartuz.

Oinarri sendoak, ezta? Hori guztia adostuta, nola bidera daiteke hiru oinarriak gauzatzera iristeko?

Egin duten hausnarketetatik zera ondorioztatu dute:

- Orain arteko hezkuntza ahalegina ez dela nahikoa izan.

- Jendarte berriak beste behar batzuk dituela eta horiei erantzun egin behar zaiela.

- Etorrin berri ugariaren eskolatzeari egokitzea eskatzen duela.

- Jendartearen eta hezkuntza sistemen artean bipolarizazio arriskua dagoela.

Horri guztiari irteera bilatzeko, honako neurriak hartzea adostu dute:

- Bi sare egoteak (publikoa, pribatu-kontzertatua) sortzen dituen disfuntzioak gainditzea.

- Ikastetxe publikoetan antolaketa berriak sustatzea.

- Irakasleentzako estimulu berriak bilatzea.

- Familiekin elkarlana bideratzea.

- Udalekin elkarlana eta erantzukizun partekatua indartzea.

Eta hori guztia aurrera eramateko oinarriko hiru neurri hartu dituzte:

- Hezkuntza aurrekontua dezente igotzen joatea, urtez urte.

- Generalitateak hezkuntza lege proiektua egitea.

- Administrazioaren eta eragile

izenpetzaileen artean, horretarako guztirako jarraipen batzordea osatzea.

Itunarekin, gure ustez, hezkuntza kalitatea eta ekitatea bilatzen da guztientzat. Eta, zentzu horretan, hartu diren neurriak ongi bideratuta daude. Denen arteko hezkuntza zerbitzua hobetzea, neurriak hartzea, bitartekoak jartzea eta guztia ebaluatzea.

Neurri deigarrien artean, ikastetxe publikoetan seigarren ordu lektiboa gehitzea dago. Horren ezarpenak, Haur eta Lehen Hezkuntzarako 4.600 irakasle gehiago kontratatzea ekarriko du.

Beste neurri deigarri bat: datorren ikasturtean hasita, dirulaguntzak igotzen joatea 6 urteko epean ikastetxe kontzertatuek zerbitzua doan eskaintzeko asmoz.

Itunarekin, etorkinak eta behar bereziak dituzten ikasleak hobeto jaso eta jendarte inklusibo eta kohesiona-tuagoa egin nahi da.

# kronika

Europako Ikasleen Foroaren azken elkarreratzea Bakaikun egin zen. Europako hainbat herrialdeetatik etorritako ikasleak eta hemengoak bildu ziren Bolognako Adierazpenari ezezkoa emateko. Bakoitzak bere errealitatea bizi arren, denek dituzte aipatu adierazpenari ezezkoa emateko arrazoiak: pribatizazioa, homogeneizazioa, ikasleek erabakitze eskubiderik eza, merkatu kutsua, enpresen nagusitasuna, prezio altuak, demokraziarik eza... Horregatik elkartu dira, denen artean beste hezkuntza eredu bat proposatzeko eta aldarrikatzeko: herritarren eskura, herritarren zerbitzura eta herritarren eskuetan dagoen hezkuntza.



## Euskal curriculumaren ikuspegia eta prozesua errespetatzeko eta laguntzeko eskatu dute

EAEko eskola publikoetako hainbat zuzendari, guraso, irakasle eta ikasleek Hezkuntza Sailaren eta EHIGE, Sarean eta BiHeren jarrera salatzen dute euskal curriculumaren eztabaidatzeko jarri dituzten oztopoak direla-eta. Aipatu eragileen presioaren ondorioz, Hezkuntza Sailak aurreko hiruhilekoan prozesua izoztu zuela adierazi dute, eta berriki beste bi erabaki hartu dituela: batetik bere berezko tresnen bidez (bereziki Berritzeguneak) eskolaz eskolako eztabaida bultzatzeari uko egin diola eta batzorde tekniko batzuetara murriztu duela ekarpenak egitea; eta bestetik euskal curriculumaz hitz egin beharrean EAEko curriculumari bu-

ruz ari dela. Horrez gain, eskola publikoetara bidali duen eskutitza negargarria dela eman dute aditzera: "Gaia orri bakar batean jorratzen du eta ez du prozesuan orain arte egin diren urratsen berri ematen, ez eta urrats honetarako aurreikusita zegoen plan-gintzan ere. Ez du eremu publikoan lanean ari den Sortzen-Ikasbatuaz elkartearen aipamenik egiten. EHIGE, Sarean eta BiHerekin adostutako proposamena soilik hartzen du aintzat, eremu publiko osoaren ordezkari bailiran. Eta materiala web gune batean zintzilik dagoela esatera mugatzen da".

Eskola publikoetako partaide hauek ezinbestekotzat jotzen dute euskal curriculumaren sortzea eta aplikatzea Euskal Herriak behar duen hezkuntza eredu erabakitze. Eta lan horretan eremu publikoak funtsezko zeresana izan behar duela azpimarratzen dute.

Hezkuntza Sailari bere jarrera norabide egokian jar dezan eskatzen diote, hau da, herri ikuspegiak eta euskal curriculumaren egitasmoaren oinarriak zainduz. EHIGE, Sarean eta BiHeri eskola publiko osoaren ordezkari gisa ez agertzeko eskatzen diete, eta euskal curriculumaren eztabaida korporatiboetatik nahiz partidistetatik salbu uzteko.

Azkenik, eskola publikoetako euskal curriculumaren inguruko eztabaidan murgil daitezela eskatzen diete.

## GUtik lehenago datorkigu munduaren kontzientzia, NItik baino.

Charles Taylor



## D ereduak gora egin du Nafarroan

Datorren ikasturterako aurrematrikulazio epea bukatu da Haur eta Lehen Hezkuntzan Nafarroan eta D ereduak gora egin duela eman du aditzera Sortzen-Ikasbatuazek. 3 urteko haurren datuak eman ditu: G ereduari 933 (iaz, 909), A ereduari 1.013 (933), I ereduari 110 (86) eta D ereduari 1.234 (1.224).

Edonola ere, Kalen Astiz Sortzen-Ikasbatuazeko kidearen ustez, kopuru horiek handiagoak izango lirarteke Nafarroako Gobernuaren jarrera bestelakoa balitz. “Beste behin ere, D ereduari izena eman nahi zutenei bidea oztopatzen aritu baita Nafarroako Gobernuak”. Ikastetxe batzuetan irregulartasun administratiboak gertatu direla salatu Sortzen-Ikasbatuazek. Ondorioz, Iruñeko zenbait auzotan gurasoek ezin izan dute D ereduari hautatu. Kasurik adierazga-

riena Arrotxapeako Cardenal Ilundarin ikastetxearena da. “Nafarroako ikastetxe guztietara aurrematrikulazio inprimaki berbera bidali zuten bitartean, ikastetxe horretara inprimaki berezia igorri zuten. Inprimaki horretan ezin zen D ereduari hautatu, ordenagailuak ez zuten onartzen aukera hori”. Legez kanpo dagoen I ereduaren kasuan, berriz, beste jarrera bat du Gobernuak. Gaztelania eta ingelesa dituen eredu hori bultzatzen du. “Edozen motuan, I ereduari ere ezin zen aukeratu inprimaki horretan, baina G ereduaren bitartez bideratu dituzte aukera hori egin dutenak”.

Horrelako trikimailuez baliatuz, gurasoak desanimatzea eta D ereduari matrikulatzeko dauden arazoak aurrean beste aukera bat egitea nahi du Gobernuak. Hori da bere estrategia eta horretara bideratzen ditu bere ahaleginak.

Ildo horretan, beste oztopo bat ere jartzen du: leku falta. Patxi Larrainzar ikastetxean prefabrikatutako eraikinean daude, eta datorren urtarilerara arte horrela jarraitu beharko dute, egoitza berria ordura arte ez dela bukatuko aurreikusten baita. Ikastetxe horretan bi urteotan lau gela betetzeko adina haurrek eman dute izena D ereduari. Burlatan, Atarrabian eta Huarten ere eskaera igo egin da aurrematrikulazioan eta ikusi egin beharko da nola bideratzen den leku faltaren arazoa.

Apirilaren hasieran greba egin zuten Nafarroako Bigarren Hezkuntzako irakasleek lan baldintza hobekitzeko. Eskaera nagusiak hauek izan ziren: Bigarren Hezkuntzako lanpostuak lizentziatuentzat izatea, soldadari dagokion osagarri berezia DBHko irakasle guztiek jasotzea eta lan baldintzak negoziatorik gabe ez aldatzea. Horrekin batera, beste zenbait aldarrikapen ere egin zituzten: antzinatasuna, familia laguntza, bost hilabete eta erdi baino gehiagoko kontratuetan udako oporrak kobratzea eta plaza erdia hartzea ez derrigortzea. LOGSE indarrean jarri ondoren, maisu-maistren eta lizentziatuen arteko lan eremuaren banaketa arautu zen. Bigarren Hezkuntzako irakasle horien iritziak, lan hobekuntzak jaso dituzten bakarrak maisu-maistrak izan dira, eta horregatik, sindikatuei berdintasunez jokatzeko eskatzen diete.



# GAIA

## Kanpoko indarkeria *irakasleengan*







**Azkenaldian gero eta sarriago entzuten dira irakasle erasotuen kasuak, hau da, ikasleen edo gurasoen erasoak jasaten dituztenenak. Ez da kontu berria, lehen ere gertatzen ziren horrelakoak, baina areagotu egin dira eta ezagutzera ematen hasi ere bai.**

**Kanpoko indarkeria deitzen zaio horri. Irakasle asko beldurtuta daude eta babesik gabe sentitzen dira. Soluzio errazik ez badago ere, esku hartu daiteke: prebentzioa, babesa eta arreta dira, besteak beste, eskura dauden erremintak.**

# G

## Irakasleak babesik gabe sentitzen dira

DBH 4. mailako gela batean andereñoak MP3a kendu zion ikasleari, arauak hala zioelako. Ikasleak, haserretu eta irakaslea jo zuen. Beste ikastetxe batean irakasleak gelatik kanpora bidali zuen ikaslea, eta irten baino lehen irakaslea hormaren kontra bultza zuen. Beste batean irakasleak besotik helduta sarrarazi zuen ikaslea jolastokitik eskola barrura, eta aita etorri eta irakaslea jo zuen. Irakasle batek baino gehiagok topatu ditu autoko gurpilak zulatuta. Eta zentroko hormetan irakasleen aurkako pintadak agertu zirenekoa ezin ahazturik dabilta oraindik batzuk.

Uste baino ugariagoak dira horrelako kasuak. Asko eta asko isilpean pasa dira, baina azkenaldian komunikabideetan oihartzuna izan dute beste zenbaitek. Irainetatik eraso fisikoetara iritsi gara, eta horrek egoera larriagotu egin du.

Ikaslearen aitak jo zuen irakasle hark argi zuen ez zela isilik geldituko. Aurrera egitea erabaki zuen: salaketa jarri, epaiketara joan... Hori bai, aitortzen du erabat bakarrik eta babesik gabe sentitu zela prozesu osoan eta emaitza ez dela inoren gustukoa izan. Lankideen babesa jaso zuen, baina administrazioaren aldetik ez zuen ezer jaso komunikabideetan agertu zen arte. Horregatik ulertzen du isilik gelditzen direnen erabakia. Bakardadea sentitzen duten askok isiltzea eta, ahal badeute, ahaztea hautatzen dute.

Isilik gelditzeko beste arrazoi bat norberaren prestigioa da. "Irakasle txartxat hartuko naute", "lankideek gaizki begiratuko didate", "20 urte daramatzat irakaskuntzan eta inoiz ez zitzaidan horrelakorik gertatu; beti besteei gertatzen zitzaiela pentsatzen nuen eta orain niri gertatu zait" ... Erasotak jasaten dituzten irakasleek lekukoak bilatu behar izaten dituzte, eta noski, ez

da erraza. Gelako gazteak ez dira lekuko gisa aterako. Zailtasun horien aurrean, isiltasuna da nagusi.

### Gurasoen jokaerak badu eragina

Bitartean, elkarbizitzak okerrera egiten du. Irakasleen autoritatea gutxitu egiten da, eta horretan gurasoen jarduerak eragin handia du. Seme-alabak hainbeste maite dira, non gauza guztien gainetik defendatzen diren; gehiegi. Ez zaie inolako mugarik jartzen, erabat babestuak eta indartsu sentitzen dira, eta nahi dutena nahi dutenean lortzen ohituta daude. Edozer gauza egin dezakete, badakitelako gurasoek babestu egingo dituztela. Gero eta gehiago entzuten dira horrelakoak: "neronek esan diot alabari egin nahi ez badu ez egiteko", "irakasleak zerbait esaten badizu, deitu mugikorretik berehala eta ni joango naiz hitz egitera", "eskua gainean jartzen badizu, salatu egingo dugu".

Bide horretatik ez goaz inora. Haurrak eta gazteak elkarrekin hezitzen ari garen helduak gara denok, baina badi-rudi aurkariak garela. Kanpoko indarkeriaren arazoa ez da irakasle eta hezitzaileena soilik; guztion arteko harremanak gaiztotzen dituen heinean, denoi dagokigu. Oro har, gizarte osoan landu behar dira prebentzioa, babesa eta arreta neurriak, eta are gehiago heziketa guneeetan. Zeren... zer ikusi, hura ikasi.



# Kanpoko indarkeria irakasleengan

## Definizioak

Laneko indarkeriaren barruan jatorri desberdineko hiru kasu hartzen dira aintzat: jazarpen morala, jazarpen sexuala eta kanpo erasoak edo indarkeria. Hirugarren horren definizioak dira honako hauek.

Bi pertsona edo gehiagoren arteko ekintza edo portaera negatiboa, zeinean batzuetan errepikatua eta besteetan noizbehinkakoa den agresibitatea agertzen den, eta horrek eragin negatiboak ditu lanlekuan langileen segurtasunerako, osasunerako eta ongizaterako.

Europako Batasuna, 1997. *La violence sur le lieu du travail*, BTS Newsletter 2002, 19-20.

Lantokiko lankide batek edo kanpoko batek, erabiltzaileak eta bezeroak barne, langile baten aurka egindako irainak, mehatxuak edo eraso fisiko eta psikologikoak, zeinak arriskuan jartzen duten biktimaren ongizatea, osasuna edo segurtasuna.

LANE Lanaren Nazioarteko Erakundea (2002) eta Segurtasunaren eta Osasunaren Europako Agentzia (2002). *Violence at work*. European Agency for Safety and Health at Work. Facts 2002; 24.

Laneko indarkeriaz hitz egin daiteke pertsona bati tratu txarra ematen bazaio lanlekuan, edo mehatxatua, beldurtua edo erasotua baldin bada. Besteak beste, honako kasu hauek hartzen dira laneko indarkeriatzat:

- Errespeturik gabeko tratua.
- Ahozko gehiegikeriak: irainak, hitz itsusiak...
- Ahozko nahiz idatzizko mehatxuak: kalte egiteko intentzioarekin egindako adierazpenak.
- Mehatxuzko portaerak: keinuak, objektuak puskatzea, objektuak jaurtitzea...
- Eraso fisikoak: kolpeak, bultzadak, ostikoak...

### Irakasleek jasaten dituzten erasoak irakaskuntza etaparen arabera

Diziplina arazoak, gustu txarreko bromak eta ikasleen arteko borroak	
Lanbide Heziketakoak	% 90
Soin Heziketakoak	% 49,5
DBHko irakasleak	% 33,5
<b>Ahozko erasoak</b>	
Irakasle guztiak	% 42
Haur Hezkuntzakoak	% 28,8
Lehen Hezkuntzakoak	% 26,9
Heziketa Bereziko katedradunak, irakasleak eta maisu-maistrak	% 17
Orientatzaileak	% 9,5
<b>Eraso fisikoak</b>	
Irakasle guztiak	% 6
Heziketa Bereziko irakasleak	% 21,4
Bigarren Hezkuntzako Lanbide tailerretako irakasleak	% 33,3

**Iturria:** Lan Arriskuen Prebentziorako on-line ikastaroa. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua. 2006ko otsaila.

## Arazoaren garrantzia

Kanpoko indarkeriak Europako biztanleen % 4ari eragiten dio. Zenbaiten arabera, kopuru hori igoz doa, baina ez dago hori egiaztatze-ko kalitate nahikorik duen ikerketarik. Hezkuntza arloan ere gauza bera gertatzen da. Inkesta gehienak eraso fisikoei buruzkoak dira, eta horiek baino ohikoagoak izan ohi dira beste eraso mota batzuk irakaskuntzan. Suedian soilik egin dira kanpo indarkeriaren prebentzio programak azken hamarkadan. Edonola ere, irakasleak arrisku gehien dutenen artean sartuak ditu Segurtasun eta Osasunerako Agentzia Europarrak.

Datu askorik ez dago, baina hantemenka egin diren galdeketa batzuk badaude, eta pista batzuk ematen dituzte. Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Prebentzio Zerbitzuak arrisku psikosozialen ebaluazioari buruzko txosten bat egin zuen 2000. urtean. Irakaskuntza ez unibertsitario publikoko 1.845 irakasle eta orientatzaile egin zitzaizkien galderak, eta ondorioetako batzuk hauek dira: diziplina arazoak, gustu txarreko bromak eta ikasleen arteko borroak inoiz ez ditu jasan % 13,5ek; batzuetan bai % 57,6k eta normalean bai % 28,4k. Irakasleen % 19,1ek euren jabetzan kalteak jasan dituzte. Ikasleen familien aldetik gehiegizko eskaerak, gatazkak eta erasoak sufritu izan ditu noiz edo noiz % 27,2k.



## Irakasleen kezkak

Taula honetan irakasleek eurek aukeratutako lan arris-  
kuen faktoreei ematen dieten puntuaketa ikusten da. Horrek  
erakusten du non dauden kezkak.

<b>Lehen Hezkuntzako irakasleen kezkak</b>	
- Ezintasunak edo erritmo oso desberdinak dituzten ikasleak artatzeko konplexutasuna.	37,44
- Familiari edo gizarteko beste arloei dagozkien arazoak eta gatazkak eskolan konpontzeko eskaera.	26
- Gehiegizko ordutegia eta denbora falta ikasleak, familia, zeregin administratiboak eta abar artatzeko.	22,08
- Diziplina arazoak.	8,96
- Errekonozimendu sozial falta.	8,28
- Ahotsaren gehiegizko erabilera.	5,04
- Lankidetzarik eza.	3,84
- Hezkuntza Departamentuaren aldetik burokrazia lan gehiegiren eskaera.	3,20
- Laneko postura desegokiak.	3,36
- Irakasleen lanarekiko mesfidantza mundu guztiaren aldetik.	1,92
<b>Bigarren Hezkuntzako irakasleen kezkak</b>	
- Irakasleen motibazio falta.	36,83
- Lankidetzarik eza.	14,50
- Diziplina arazoak.	11,27
- Lanaren emaitzen ziurtasunik eza.	9,72
- Lanaren errendimendua baloratzeko zailtasuna.	11,66
- Ezintasunak edo erritmo oso desberdinak dituzten ikasleak artatzeko konplexutasuna.	7,38
- Familiari edo gizarteko beste arloei dagozkien arazoak eta gatazkak eskolan konpontzeko eskaera.	5
- Egonkortasunik eza gelak ixtearen ondorioz edota ikastetxez aldatu beharra.	3,61
- Gelan ikasle gehiegi izatea.	2,50
- Profesionalki promozionatzeko zailtasunak.	2

## Erasoen ondorioak

Laneko erasoek bizitza pertso-  
naleko hainbat alderditan dute  
eragina: osasunean, lanean, fami-  
liako bizitzan eta bizitza soziale-  
an. Eta horri, biktimaren ingur-  
ruan sortzen den uneko efektua  
gehitu behar zaio.

Buru osasunaren kasuan,  
hainbat ondorio sor daitezke:

- Beldurra, lotsa.
- Autoestimua baxua, inguru profesionala ez ikustea.
- Estresa, antsietate egoerak, suminkortasuna, kezka, loezina.
- Fobia eta beldur krisien gara-  
penaren ondorioz sortutako de-  
presioa eta estresa.

Eraso fisikoen ondorioak  
oso ongi deskribatu eta zehaztu  
dira AEBko eskuliburuetan. Ha-  
rramazka, kolpe, atximurkada,  
bultzada, objektuen eta armen  
erabilera eta abarren ondorioz  
sortutako lesio askotarikoak des-  
kribatzen dituzte. Ondorioak mai-  
lakatu egiten dira atzamarkada  
edo ubelduretatik hasi eta herio-  
tzara arte.

Zeharkako ondorioak: lane-  
ko bajak, medikuaren eta lagun-  
tza psikologikoaren kostua, or-  
dezkoaren kostua, betiko-betiko  
lanerako ezintasuna... Gaur egun  
neurtu gabe dauden kostuak dira  
eta ikastetxeetako arduradunen  
utzikeriaren eskuetan gelditzen  
dira.

**Iturria:** Artazcoz, L.; Rabad, I.: Identificación de los factores de riesgo laboral en docentes: un estudio Delphi. Archivo Prevención Riesgos Laborales, 2002; 5(2): 53-61. Kataluniako irakasleen artean egindako ikerketa da.



# Neurriak non eta nola

## Zer egin daiteke lanean kanpoko indarkeria arriskuen aurrean?

### 1. Prebentzioa

Badago arriskuak gestionatzeko eredu bat eta lan osasuneko arazo honetan erabilgarria da. Lan Arriskuen Prebentzioaren 31/1995 legearen 15. artikuluan eta Prebentziorako Zerbitzuen Araudian jasota dago. Jarraitu beharreko urratsak hauek dira:

**1.- Arriskuak identifikatu:** horretarako langileei galdetu behar zaie. Aurretik eginda dauden arriskuen zerrenda batzuk ematen zaizkie, arrisku horiek badituzten edo ez idatz dezaten. Adibidez, irainduak, mehatxatuak edo erasotuak al diren galdetzen zaie.

**2.- Arriskua ezabatu:** enpresaren eta langileen ordezkariak negoziatuko dute nola egin.

**3.- Arriskua ebaluatu:** arriskua ezin bada ebaluatu edo bialdeen artean desberdintasunak baldin badaude arriskua dagoen edo ez definitzerakoan, edo arriskuaren jatorria ez bada ezagutzen, beharrezkoa da arriskua ebaluatzea.

Arriskuak ebaluatzerakoan, beronen hedapena, intentsitatea eta arrazoiak aztertzen dira. Egoera onargarria den edo ez zehazten duen muga bat jarrita dago.

**4.- Lehentasunak ezarri:** ebaluatutako arrisku guztien artean, langile gehienei eragiten dietenak edo ondorio larrienak dituztenak zuzenduko dira lehendabizi. Zeregin horretan sindikatuek esku hartzen dute, enpresak normalean nahiago izaten baitu altzarrietan edo eraikinetan aldaketak egitea, gestioa demokratizatzeke edo ekitate

lortzeko aldaketak egitea baino. Sarritan alderdi psikosozialak ez dira aintzat hartzen, eta horregatik, sindikatuek kontuz ibili behar dute. Kriterio enpresarial edo teknikoaren aurretik, prebentzioaren planifikazioari eman behar diote lehentasuna.

**5.- Prebentzio programa:** arriskuaren jatorria edo arrazoiak kontuan hartuta egin behar da programa, arriskuak ez baitira berdinak denentzat. Horregatik, garrantzitsua da irakasleei beraie galdetzea euren ustez zein diren benetako kausak.

**6.- Ekintzak:** ekintza kolektiboek lehentasuna emango zaie indibidualen aurrean. Neurri guztiek programatuta egon behar dute; hau da, helburuak zehaztu behar dira, erantzunkizunak erabaki, epeak ezarri eta behar diren bitarteko material eta finantzieroa jarri. Prebentzio planean, zuzentzeko ekintzez gain, beti ezarri behar dira formazio ekintzak, osasuna zaintzekoak eta larrialditakoak.

**7.- Eraginkortasuna neurtu:** helburuak lortu diren edo ez ikusi beharko da. Garrantzi handiena duen faseetako bat da eta gutxiena aplikatzen dena.



### 2. Babesa

Eraso baten ondoren ondorioak gutxitzeko hartzen diren neurriak eraso fisikoekin lotuta egoten dira, eta normalean oso gutxitan aplikatzen dira irakaskuntzan. Egokiena lantokiko lekuek duten arriskua ebaluatzea da. Zorritzarrez, ordea, hasieran arriskuen ebaluazioa egiten denean, ez da aintzat hartzen eraso fisikoaren aurreko babesa.

Babesaren ikuspegitik, neurri teknikoak eta antolaketakoak har daitezke, besteak beste: ikastetxeko sarrerek ikuspen ona edukitzea eta ongi argiztatuta egotea, altzariak egoki jarrita egotea alde egiteko beharra sortzen bada, alerta mekanismoak edukitzea, noizean behin erabiltzeko armak edukitzea, bideo-zaintza, erasotzeko erabil daitezkeen materialak kentzea, larrialdi irteerak...

### 3. Arreta

**1.- Erasoa ikertu eta erregistratu:** horrek ondorioen jatorria, hedadura eta larritasuna ezagutzen lagunduko liguke. Beraz, indarkeria ekintzak definitu behar dira, informazio hau jarritz: biktima eta erasotzailea, mota guztiatako ondorioak, gertaerak, ordua, lekua eta kausa posibleak. Datu horiek denak erregistratu ondoren kaltetuak erregistro horren arduradunekin jarri beharko luke harremanetan. Erregistro hori Segurtasun eta Osasun Komiteak aztertu beharko luke tarteka, erasoaren arriskua zuzentzeko xedez.

**2.- Biktima eta haren inguruneari kasu egin:** gertaeren ondorengo orduetan ez da bakarrik utzi behar eraso-



tua. Nagusiek babesa eskaini behar diote.

Batetik, osasun arreta eskaini behar zaio, bai medikuarena eta bai psikologikoa. Eta ez berari bakarrik, baita eraso ikusi dutenei edota antzeko arriskuan daudenei ere. Zenbaitek adituek zuzendutako saio kolektiboak egitea aholkatzen dute, eraso, kausak eta hartutako neurriak aztertzeko.

Langileen prebentziorako ordezkarietara abisatu behar zaie, prebentzio plana berriak deitzen. Izan ere, eraso bat gertatu bada, plan horrek badu akatsen bat.

Azkenik, lege aldetik, araudia aldatzea lortu behar da. Izan ere, egun biktimak joan behar du salaketa jartzera. Hobe litzateke enpresak edo bere ordezkarietara egitea salaketa hori. Bien bitartean, enpresako zerbitzu juridikoei biktimaren zerbitzura jarri behar dute.

## Zenbait aholku indarkeria eraso baterako

- **Moztu elkarrizketa errespetuz baina tinko.**
- **Esaiozu solaskideari:**
  - Ez zaizula elkarrizketaren tonua gustatzen.
  - Ez duzula onartzen tratu iraingarriak.
  - Egoki ikusten baduzu, eman amaitutzat elkarrizketa.
- **Esan solaskideari alde egiteko edo jarrera aldatzen ez badu bilera lekutik alde egingo duzula.**
- **Alde egiten baduzu, ez itzuli.**
- **Jakinarazi lagunei zer gertatu den, erasotzailearengana hurbil ez daitezen.**
- **Jarri alerta egoeran.**
- **Erasoak erregistratzeko arduradunarekin harremanetan jarri.**

## 915 220 827 Laguntza telefonoa

Euskal Herrian ez baina estatu espainiarrean zerbitzu berri bat jarri dute, eta badirudi, oraingoan, aitzindari dela. ANPE sindikatuak telefono zerbitzu bat jarri zuen martxan iazko azaroaren 30ean: 915 220 827. Arazoak dituzten irakasleek bertara dei dezakete, eta psikologoen laguntza, aholkularitza nahiz informazioa jaso dezakete. Inmaculada Suárez psikologoa da zerbitzuaren koordinatzailea.

### Zer eskaintzen die telefonoak deitzen dutenei?

Lehendabizi, datuak hartzen ditugu, beti konfidentzialtasuna bermatuz. Halere, datuak eman nahi ez dituzten irakasleek egoten dira, euren eta ikastetxearen izena eman nahi ez dutenak, eta errespetatu egiten dugu.

Entzun egiten diegu eta orientazioa eman. Batzuetan nahiko larrituta deitzen dute eta lasaitzen saiatzen gara.

Ondoren, kasuaren arabera, hainbat ekimen jartzen ditugu martxan: aholkularitza juridikora bideratzen dugu, beharrezkoa bada administrazioa joaten gara, edota ikastetxera joan eta beraiekin edo zuzendaritzakoekin hitz egiten dugu...

Ondoren, jasotako datu guztiak administrazioan aurkezten ditugu, behingoz jabe daitezten irakasleek eta hezkuntza komunitate osoak zer-nolako errealitatea bizitzen duten.

### Orain arte, zein izan da administrazioaren erantzuna?

Orokorrean proposamen batzuk luzatu dizkiogu, eta oraindik ez dugu erantzunik jaso. Ikertu eta ikusiko dituztela... Ikuskariekin hitz egiten dugu. Parte hartu behar izan duten kasuetan, irakasleen alde jokatu dute eta inplikatu egin dira. Uste dut telefono hau sortuz geroztik eta prentsan izan duen oihartzunagatik, hasi dela esku hartzen.

### Arlo juridikoan, zer aukera daude?

Erasoak gertatzen direnean, irakasleak zein pauso jarraitu behar dituen azaltzen du aholkularitzak. Bere aurkako salaketa bat egon bada, aurre egin diezaioke, edo erasoaren aurrean salaketak jarri.

### Jarraipenik egiten al duzue?

Bai, egiten dugu. Batzuetan administrazioak irakaslea defendatzeko abokatuak bidali behar izaten ditu. Horiez aparte, guk geuk ere gure abokatuak ditugu eta present egoten dira.

Eraso eta mehatxu kasu batzuetan jarraipena egiten dugu. Batzuk 5-6 aldiz jarri dira gurekin harremanetan. Sarritan pautak batzuk ematen dizkiegu eta berriz deitzen digute zer ondorio lortu dituzten jakiteko edo zerbait gehiago nahi dutelako.

### Dei asko jasotzen al dituzue?

Bai, asko dira. Kontuan hartuta azaroaren 30ean hasi ginela eta abenduan Gabonetako oporrak egon zirela, 460 dei jaso ditugu orain arte. Etengabe jasotzen ditugu deiak, batez beste egunean 10. Gutxiago izatea nahiko genuke.

### Nola baloratzen duzue telefonoa jarri izana?

Askotan irakasleek ez dakite nora joan. Administrazioak ez die erantzuten; gurasoekin arazoak ez edukitzeagatik beste aldera begiratzen du. Orduan, beharrezkoa izango litzateke irakasleek erreferentzia bat edukitzea, nora jo edukitzea.

### Gurasoekin zerbait egin beharko litzateke, ezta?

Bai. Gurasoak kontzientziatu behar dira, ez eskolako elkarbizitza hobetzeko soilik, baita familiaren eta gizarte osoaren hobe beharrez ere. Gurasoak, eskolak eta administrazioak elkarrekin eseri eta adostasunera iritsi behar dute arazoari irtenbidea bilatzeko.

## Irakasleek jasaten dituzten kanpoko erasoak, jadanik salatutako arazoa



### Iñaki MORENO

LABeko PREBENTZIO ORDEZKARIA ETA NAFARROAKO  
GOBERNUKO PREBENTZIORAKO BATZORDE  
KOORDINATZAILEKO KIDEA

Aita baten masailekoa jasotako irakasle bat, ikasle batek erasotutako andereño bat, iraindutako atezain bat, eta UPNko Gobernuko Hezkuntza Departamentuak bere eskuetan dagoen guttia egiten ari dela dio gatazka horiek konpontzeko. Gainera, arazoari ez dio- la erantzuten esaten dutenei gezurtiak deitzeko gai da.

LABk 2005eko ekainaren 28an Irakasle Ez Unibertsitarioen Segurtasun eta Osasun Batzordean kanpoko indarkerien arazoari formalki arreta jartzeko eskatu zuen. Ez zen ezer egin apirilaren 4ra arte. Egun horretan, sindikatu guztiek Segurtasunerako eta Osasunerako Batzorde Berezi bat osatzeko eskatu zuten. Administrazioak maiatzean Prebentzio Zerbitzuak urgentziatzko ebaluazio bat egiteko konpromisoa hartu zuen, ikastetxeetan kanpoko indarkeriaren arriskua nolakoa eta zenbatekoa den ikusteko. Gainean egongo gara konpromisoa bete dezan. Ebaluazioa-

ren helburua zera da: kanpoko indarkeriaren hedapena, jatorria eta arrisku faktoreak zein diren jakitea.

Badirudi administrazioaren jarrera aldatu dela. Horretan sindikatuen ekarpenak baino eragin handiagoa izan du Berriozarko kasuaren ondorioz Nafarroako irakasleen artean sortu den elkartasun mugimenduak.

Irakaskuntzaz gain, gainerako arloetako langileen erasoak ere iraunkorrak dira. Kaltetuenak diren lan eremuak hauek dira: zerga-bulegoak, geriatrikoak, mediku ikuskapenak, ezinduen zentroak, psikiatrikoak, larrialdiko telefonoak, larrialdiak, polizia eta osasun garraioak. Arlo guztietako Segurtasun eta Osasun batzordeetan aurkeztu dira arazoari arreta emateko eskaerak. Baina ez da gauza askorik aurreratu; administrazioiko eta prebentzioko zerbitzuetako arduradunen ulermena besterik ez.

### Eskari zehatzak administrazioari

Langileen aldetik, lau eskaera egiten dira:

- Kanpoko indarkeria lan arriskuen ebaluazioan sartzea, arazo sortzen duten arrisku faktoreak ezagutze aldera.


- Ikastetxeetan zein Hezkuntza Departamentuan erasoaren erregistroa egitea, bestela ez baitakigu zer maiztasunekin, zein mailakoak eta noren artean gertatzen diren erasoak.

- Lortutako informazioaren arabera, prebentzio plan berezi bat egitea. Bertan honako alderdi hauei dagozkien ekintza prebentiboak sartu behar-ko lirateke: lan antolaketa, talde lana bultzatzea, eskola komunitatearen beharrian eta eskubideen karta egitea denen partaidetzarekin, gatazkek bideratzeko prestakuntza izatea eta abar.

- Erasoaren ondorioz epaitegietara iritsiz gero, Departamentuak hartu behar du protagonismo juridikoa.







## Ikasleekiko harremanaren zailtasuna



**Marilén ZARRALUKI**

PSIKOLOGOA ETA IRAKASLEA

Aipatutako guztitik arazoari lotutako formazio ikastaroren bat baino ez da eskaini. Nazkatuta gaude horrelakoe-kin. Lan arriskuei aurre egiteko ikastaroak baino ez dira eskaintzen, errazena. Adminitrazioa lan arriskuen prebentziorako arduradunek ez al dakite ikastaro isolatuak ematea ez dela eraginkorra prebenitzeko? Arriskuaren jatorria artatzeko beste prebentzio ekintzen osagarri dira, baina ez ordezko.

Apirilaren 5ean Nafarroako Gobernuko Departamentu eta Erakunde Autonomo guztietako idazkari tekniko guztiek, prebentziorako goi arduradunek, bilera egin zuten. Funtzio Publikoko zuzendari orokorra kanpoko indarkeriaren aurrean, ekiteko protokolo bat aurkezteko zen. Edukiak ezagutzeko irrikaz gaude. Langileen eskaerak ez dituzte irakurtzen, baina agian, azkenean, ezagutu dituzte Europako Batzordeak segurtasun eta osasun estrategiaren arloan ezarritako helburuak.

Ez da erraza gaur egun hainbat ikastetxetan bizitzen ari diren egoeren gainean analisi bat egitea, ez eta zergatiak finkatzea ere. Izan ere, ugariak dira egoera horietan eragiten duten faktoreak eta gehiegizko sinplifikazioetan erortzeko arriskua dago. Hori dela eta, niretzat esanguratsuak diren alderdi batzuk aipatuko ditut hemen; esaterako, belaunaldi berrien mugarik eza, irakasleren prestakuntza falta arlo psikologikoa eta talde dinamikari dagokienez, irakasleria sozialki bizitzen ari den deslegitimazioa, edota jendartean nagusitzen ari den harreman eredu.

Lehenengo alderdiari dagokionez, deigarria da belaunaldi berriek erakusten duten euskarri falta eta elkarbizitzarako behar-beharrezkoak diren oso oinarriko arauak portzentaia handi ba-

tean barneratu gabe izatea. Zenbait ikasle ohituta daude nahi dutena azkar eta modu errazean lortzen, eta irakasleak edo beste ikaskideren batek mugarik tiki-ena jartzen dienean, ez dute inolako erresistentziarik frustrazio horri aurre egiteko. Ondorioz, jarrera desegokiarekin erantzuten dute askotan: ez dute ezezkorik onartzen, ukatu zaiena indarrez hartzen dute eta erresistentzia aurkitzen badute, jarrera desegokiak edota bortitzak erakusten dituzte.

Horri guztiari zera gehitu behar zaio: irakasleria, orokorrean, ongi prestatuta egoten dela arlo akademikoari dagokionez, baina askotan ez duela prestakuntza berezirik taldeetan sortzen den dinamikari buruz, garapen psikologiari buruz, edota nerabezaroan ematen diren bizipen eta ezaugarri bereziei buruz. Hori dela eta, sarritan, oso mugatuta aurkitzen da ikasleen hainbat jarrerari erantzun behar dienean eta ez du jakiten nola egin aurre ezintasun sententzioari. Hau da, irakasleak jakitun dira alderdi akademikoaz gain ikaslearen jarrerak ere hezitu behar dituztela, baina aldi berean, ez dute baliabide nahikorik ikasleen jarrera desegoki horien aurrean kokatzeko.

Gurasoek ere, hezkuntza komunitateko ezinbesteko partaide diren aldetik, paper garrantzitsua jokatzen dute seme-alaben heziketa prozesuan. Baina, batzuetan, gehiegizko babesa ematen diete, irakasleek jarritako mugak zalantzan jartzen dituzte eta irakasleak desautorizatu egiten dituzte seme-alaben aitzinean. Eta jakina, azken hauek gurasoen babesa izanzen dutela jakinda, egoeraz baliatzen dira bazterrak nahasteko.

Bukatzeko esan, ikasleek ere oso ongi islatzen dutela beren eguneroko harremanetan jendartean nagusitzen ari den "zapaltzaile-zapaldua" harreman eredu; parekidetasuna, mutualitatea eta elkarrekiko errespetua bultzatu beharrean, menpekotasun harremanak bultzatzen dituen. Harreman paradigma horretatik abiatuz erlazionatzen dira egungo ikasle asko, bai irakasleekin bai eta gainerako ikasleekin ere.

# pedro miguel etxenike

## ELKARRIZKETA

EHUko Fisikako katedraduna. DIPCko lehendakaria.

“Gizakia ingurumenera egokitzuz joan da. Orain arazoa alderantzizkoa da: teknologia ingurumena behartzen ari da guri egokitzeko, eta ondorioz, ingurumena hondatzen ari da

”





# pedro miguel etxenike

# E

**// Bistan dago zientziak mugak eduki behar dituela. Baina oso-oso gai konplexua da. Soluzioa ez da zientzia eta teknologia alde batera uztea, baizik eta beste arloetan ere hor bezala ikertzea; adibidez, etikan. Zientzia eta teknologiako aurrerapenek beste arloetakoekin batera joan behar dute.**

**//**

Izabako medikuaren eta andereñoaren semea Euskal Herriko zientzialari ezagunena izatera iritsi da, eta oraindik ikusteke dago nora ailegatuko den. 1972an lizentziatu zen Zientzia Fisikoetan Nafarroako Unibertsitatean. Doktoregoak egin zituen Cambridgeko Unibertsitatean (1976) eta Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan; azken horretan, Zientzia Fisikoetako (1977). Cambridgeko Unibertsitateko Cavendish laborategian aritu zen lanean, eta mundu zabalean aritu da kolaboratzen eta hitzaldiak ematen. Gaur egun EHUko Fisikako katedraduna da (materia kondentsatuan) eta Donostia International Physics Center-eko lehendakaria.

Tituluak adina sari eman dizkiote; besteak beste: kultura arloko Vianako Printzearen saria 1997an, Asturiasko Printzearen Ikerketa Zientifiko eta Teknikoaren Saria 1998an, Euskaldun Unibertsal izendatu zuten urte berean, EHUko Urrezko Domina 1999an eta Blas Carrera Ikerketa Sari Nazionala iaz.

Laborategiak eta gelak ez ezik, bulegoak ere lanleku izan ditu, batez ere 1980-1983 bitartean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu izan zenean, eta 1983-1984an, Hezkuntza eta Kultura sailburu eta gobernuko bozeramaile izan zenean.



**Zer da zientzia Euskal Herriko zientzialari ezagunenarentzat?**

Zientzia ezagutza, edertasuna eta aplikazioa da. Ulertu daitekeenaren artea da, arazoei azalpen arrazionala, harmonikoa ematea.

**Eta zer da teknologia?**

Teknologia egin daitekeenaren artea da, betiere denboraren eta kostuaren mugen barruan.

**Eta ikerketa?**

Ikerketa sormena da, mundu guztiak egiten duena uneoro modu batera edo bestera: zuek aldizkaria egiten duzuenean, margolariak margotu egiten duenean, nik nire lana egiten dudanean... Gutxieneko sormena duen edozein lan da ikerketa. Nire kasuan, zientziaren aurrerapenari eta teknologiaren aplikazioari lotutako ikerketa.

**Zergatik da garrantzitsua zientzia eta teknologiaren dibulgazioa?**

XXI. mendeko kultura, hein handi batean, kultura zientifikoa eta teknologikoa izango da, eta garrantzitsua da horretaz konturatzea. Jada XX. mendeko bigarren zatia hala izan da.

Teknologia betidanik izan da garrantzitsua gizartearentzat, baina inoiz ez da egon orain bezain sartuta eta kokatuta gizarteko arlo guztietan. Politikariek batez ere, baina baita gizarte osoak ere oro har, horretaz konturatu behar dute, eta horren arabera jokatu.

Zentzu horretan, garrantzitsua da ikertzaileok eta zientzialariok gizarteari zer egiten dugun, zergatik egiten dugun eta zertarako balio duen azaltzea.

Arrazoi ugariengatik egin behar dugu hori, baina besteen artean honako honengatik: zientifikoki informatutako gizartea libreagoa delako, presio taldeek gutxiago manipulatu dutelako eta alternatiba garrantzitsuen aurrean erabakiak hartzeko prestatuago egongo delako.

### **Noiz dago gizarte bat zientifikoki informatuta?**

Hiru ardatzek definituko lukete zientifikoki informatutako gizartea:

1- Zientziaren oinarri orokorreki burozko heziketa orokorra edukitzeak. Hau da, jakiteak Eguzkia ala Lurra, bietako zein den besteren inguruan biraka dabilena; jakiteak gutxi gorabehera unibertsoan dugun kokapena; bizitzan dugun kokapena; jakiteak ADNak helize bikoitzeko egitura duela; jakiteak elektroia bat atomoa baino handiagoa edo txikiagoa den; jakiteak antibiotikoek benetan erasotzen dieten edo ez birusei... Horrelako kontzeptu orokorrak jakin beharko genituzke. Shakespeare edo Cervantesen moduan, Einstein edo Darwin ezagutu beharko genituzke. Hori da heziketa zientifikoaren zati bat.

2- Benetan zientifikoa dena ezagutzeak. Hau da, astrologia eta astrofisika ez direla gauza bera ulertzeak; homeopatia eta ebidentzian oinarritutako medikuntza ez direla gauza bera ulertzeak. Alegia, kontzeptu zientifikoak zein diren ezagutzeak. Eguraldi iragarpena egitean tenporez hitz egitean, jakin dezagula tenporek ez dutela pisu zientifikorik. Pisu emozionala, estetikoak, esperientziarena edo dena delakoa edukiko dute, baina zientifikorik ez. Horregatik, gauza zientifikoak zein diren ezagutu behar da, jakin zer esan nahi duen zerbait zientifikoki egiaztatuta egoteak, eta zein punturaino frogatu daitekeen edo ez.

3- Eragin ekonomiko eta soziala ezagutzeak. Gaur egun zientzia ekin-tzarako, botererako tresna da. Orain dela 200 urte jendeak kuriositateak bul-tzatuta pentsatzen eta ikertzen zuen. Gaur egun ez. Politika zientifikoa he-



rialde garatuen politika ekonomikoaren zati da. Nazio garatuak ez dira hala-beharrez edo zoriz aurreratu, baizik eta ondo definitutako politika baten ondorioz. Eta politika horrek ezagutza, teknologia, zientzia... baloratu dituelako. Beraz, ezagutza zientifikoetan eragin sozio-ekonomiko handia dago.

### **Gaur egun urrun al gaude zientifikoki informatuta egotetik?**

Aipatu ditudan hiru ardatzen interpretazio ez oso zorrotza eta ez oso biguna egiten bada, urrun gaudela esango nuke. Estatu espainiarrean biztanleriaren % 2 egongo litzateke zientifikoki informatuta. Alemanian % 5-6. AEBko gizartean desberdintasun handiak daude eta denak kontuan hartuta, batez bestekoa baxua izango da. Dena dela, klase buruzagiak informatuago egongo lirarteke. Segur aski AEBko klase buruzagiak Europakoak baino informatuago egongo dira zientzian eta teknologian.

### **Politika zientifikoa politika ekonomikoaren zati bada, zientzialariok askeak al zarete nahi dituzuen ikerketak egiteko?**

Zilegi da botere publikoak lehentasunak ezartzeaz arduratzea. Ardura ho-

rrek, ordea, ez luke teknologiaren aurrean bizi eta lanean ari direnen ekimena oztopatu behar. Ikerketa bideratzen saiatzea baino garrantzitsuagoa da, eta askoz emankorragoa, zientziak garatzeko behar duen giroa sortzea, zientziaren landarea hazteko lurra prestatzea.

Gainera, ez dugu ahaztu behar giza-terriak egin dituen aurrerapausorik handienak ikerketa hutsari zor zaizkiola; hau da, ikertzaileen irudimena eta aurrez egindako lana beste mugarik ez duen ikerketari. Hain zuzen ere, ikasitako kontzeptuen murrizketatik askatu eta irudimenari hegan egiten utzi dioten pertsonak sortu izan dituzte beti zientzia kontzeptu nagusiak: nola Newton edo Galileok, hala Einstenek; nola Harveyk hala Watson eta Crickek.

### **Zientziari, beste zenbait gauza- ren artean, arazoei irtenbidea ematea edota arazoei aurre har- tzea eskatzen zaio. Zer diozu exijentzia horren aurrean?**

Ongi iruditzen zait, baina ulertu behar da zientziak nola funtzionatzen duen. Ezin dugu etorkizuna iragarri. Historian zehar hainbat iragarpen egin dira, eta ez dute asmatu. Michelson-ek, garai guztietako zientzialari handienak, zera esan zuen erlatibitatearen eta fisika kuantikoaren teoriak ezagutu

# pedro miguel etxenike

E

Lehen, informazioa boterearen, eta informaziorik ez edukitzea ezagutzarik ez izatea. Gaur egun, informazio gehiegi edukitzeak dakar ezagutzarik eza. Beraz, hor dago hezkuntza sistemaren eztabaidetako bat: etengabe ikasteko inbertitu behar da denbora, baina informazioa destilatuz.

”

baino 10 urte lehenago: “Fisikako lege garrantzitsu guztiak ezagutzen ditugu jada”. IBMko zuzendariak esan zuen munduan bost ordenagailurentzako merkatua soilik zegoela 1943an. “Ez dago inolako arrazoirik etxean ordenagailu pertsonal bat eduki nahi izateko”, esan zuen 1977an Digital Equipment Corporation-eko lehendakari eta sortzaile Ken Olsonen. “Hegazkinak oso jostailu interesgarriak dira, baina ez dute balio militarrik”, esan zuen Gerrarako goi eskolako Estrategia irakasle Marechal Ferdinand Fochek. “Bonba atomikoa inoiz egin den txorakeriarik handiena da. Ez da inoiz lehertuko. Lehergailuetan aditu gisa esaten dizuet”, esan zion W. Leahy almiranteak Truman presidenteari Hiroshiman gertatutakoa baino hiru hilabete lehenago.

Kontuz ibili behar da iragarpenekin. Lord Salisbury-k zioenez, adituei jaramonik ez egitea da inori eman dakiokeen aholkurik onena. Eta alde batetik, egia da. Zeren erlijiosoei galdetuz gero, ia dena da bekatu; sendagileei galdetuz gero, dena da osasunerako kaltegarri; eta militarrei galdetuz gero, dena kolokan dago beti.

Orduan, iragarri? Aurre hartu? Hobe da egitura, buru eta jarrera malguak



sortzea eta datozen aldaketetara azkar egokitzeko ahalmena edukitzea. Etorriko dena ez baita izango guk espero duguna.

Horixe da, gainera, aldaketaren ezaugarria. Etorrizuna ez da izango orainaren jarraipen hutsa, aldatu egingo da. Bacon filosofoak zioen etorkizuna finkatzen duten gauzak jatorriz desberdinak direla, *diferent in kind*. Beraz, ezin daitezke aurreratu. Aldaketetara egokitzeko gai izango diren buru malguak sortu behar dira.

## Zer ekarpen egin diote zientziak eta teknologiak gizarteari?

Zientziak eta teknologiak bizitza gizatiarrago bihurtu dute, naturarekiko menpekotasuna gutxituz. Garai batean





bizitza zekena, krudela eta motza zela zioen Hobbes-ek. Karlos V.a, bere handitasun osoan, hezueriak jota gazterik hil zen, eta haren adinean nik maratoia egin nezakeen. Bangladeshen natura idilikoaren hondamena sufritzen ari direnek zer iritzi duten jakin beharko da. Han behar dena da zientzia eta teknologia gehiago.

### **Baina arazoak eta beldurrak ere sortu ditu.**

Bai, zientziak zeregin gizatiarra eduki du, baina aldi berean, arazoak ere sortu ditu. Ezezagunean aurrera egiteak ziurgabetasuna sortu du.

Garai ziurrak pasa dira, bukatu ziren. Eta guri ziurgabetasunaren garaian bizitzea egokitu zaigu. Etika ziurrik gabe, non balioak, identitatearen oinarriak eta abar ahulagoak diren.

Baina beldurrak beti egon dira hor, hori ez da berria. Gure jatorrizko biologian begiratuta, ikusten dugu aldaketari beldurra diogula. Guk egokitzen ikasten dugu, eta behin ikasi ondoren, ez diezagutela egoera aldatu. Lao Tse-ren garaian egin zituzten zubiak naturaren edertasunaren aurkako atentatutzat hartu zituzten, eta gaur egun, ostera, edertasunaren eta idilikoaren gailurtzat hartzen ditugu. XX. mendearen hasieran sendagileek jendeari trenean ez ibiltzeko esaten zioten, abiadurak itsutu egin zitzaizkela esanez.

Ikara beti existitu da. Izatez, eboluzioa aldaketara egokitzea da. Gizakia egokituz joan da milioika urtean zehar, ingurumenera egokitu da. Hain justu, orain arazoa alderantzizkoa da: teknologia ingurumena behartzen ari da guri egokitzeko, eta ondorioz, ingurumena hondatzen ari da.

Horrez gain, ezezagunean aurrera egiteak mehatxu batsor dezake, eta hori beti egon da. Baina gaur egungo egoera kualitatiboki desberdina da, eta hori ez da beti horrela izan. Esate baterako, gizateriak inoiz ez du eduki orain daukan autosuntsiketarako posibilitate praktikorik. Orain arte ezin zen aldaketa genetikorik egin gizakietan, eta orain bai. Orduan, orain kualitatiboki



desberdina da egoera. Martin Ressek eta beste zientzialari batzuek diotenez, gizateriak beste 100 urte ez bizirauteko probabilitatea oso handia da.

### **Orduan, non dago muga? Zientzia eta teknologiari ez al zaio mugarik jarri behar?**

Bistan dago zientziak mugak eduki behar dituela. Baina oso-oso gai konplexua da zientzian. Muga giza duintasunak jartzen duela esaten da, baina... *in vitro* ernalketak, esate baterako, gizatxarkeria zirudien. Gure amonentzat naturaren legeak bortxatzea zen, eta guretzat normala da. Hemendik 50 urtera denok energia nuklearraren aldekoak izango gara, eta ekologistak izango dira aldeko sutsuenak.

Horregatik, mugak jartzea aipatzen denean, kontuz ibili behar da. Ezin dugu ikertu Donostia osoa suntsituko lukeen birusa. Ikerketa bera zitala izango litzateke. Baina bonba atomikoa... Naziak haren atzetik zebiltzan; zer egin behar zuten aliatuek? Zer da hobe askatasunarentzat? Eztabaidak oso-oso zailak dira.

Soluzioa ez da zientzia eta teknologia alde batera uztea. Ez litzateke praktikoa izango. Erabaki global bat izan beharko luke. Egin behar dena da, zientzian eta teknologian ikertzen den moduan, beste hainbat arlotan ere iker-

tu. Adibidez, etikan. Arlo horietako intelektual batzuk euren publikoari begira daude hango eta hemengo tertulietan. Zergatik ez dute ikertzen? Zientzia eta teknologiaren aurrerapenek beste arloetako aurrerapenekin batera joan behar dute. Pentsa dezagun horretaz.

### **Zure ustez, zer leku izan behar du hezkuntzak gaur egungo gizartean?**

Hezkuntza sistema elementurik erabakigarriena dela uste dut. Horregatik, garrantzitsua da hezkuntza sistema gai izatea ikasten irakasteko eta berezko sormenari bere horretan eusteko edo, gutxienez, ez murrizteko.

### **“Ikasten irakatsi” diozu. Gaur egungo informazio uholdearen aurrean, zer da ikastea?**

Gaur egun informazio gehiegi dago eta etorkizunean oso garrantzitsua izango da hori destilatzea. Izan ere, lehen informazioa boterea zen, eta informaziorik ez edukitzea, ezagutzarik ez edukitzea. Gaur egun, ezagutzarik eza, oro har, informazio gehiegi edukitzeak dakar. Beraz, hor dago hezkuntza sistemaren eztabaidetako bat: etengabe ikasteko inbertitu behar da denbora, baina informazioa destilatuz.

Agian helburua prestatzea litzate-

// **Teknologia betidanik izan da garrantzitsua gizartearentzat, baina inoiz ez da egon orain bezain sartuta eta kokatuta gizarteko arlo guztietan. Horregatik, garrantzitsua da zientzialariok gizaritari zer egiten dugun, zergatik egiten dugun eta zertarako balio duen azaltzea. Besteak beste, zientifikoki informatutako gizartea libreagoa delako.**



ke, eta ez informatzea soilik. Zeren unibertsitatean, adibidez, asko dakigu, baina gutxi ulertzen da. Eta ulertzea jakitea baino gehiago da. Ulertzea da, norberak dakienaren jabe egitea. Norberak daukana destilatzea eta beste gauzak egiteko tresna moduan erabiltzea.

Badago anekdota txiki bat ikasteari buruz. Max Perutz, XX. mendeko biologo handienetako bat, 25 urte ikertzen egon ondoren hemoglobinarenean egitura aurkitu zuena, Kanadan kontzentrazio eremu batean sartu zutenean eta besteekin mintzatzean, honetaz konturatu zen: gehiegi espezializatzeko, ikasteko beste era batzuk ezin izan zituela ikasi.

Horregatik da garrantzitsua edukietan eta horiek transmititzeko moduan asmatzea. Hezkuntza sistemarentzat garrantzitsua da edukiekiko maitasuna, estimua, balioak... transmititzea da. Ikasten irakasteko modu bakarra hori da: edukiekiko, gaiarekiko eta egiten denarekiko maitasuna.

### **Edukiei ematen zaien garrantzia ez al da handiegia? Non gelditzen da sormena?**

Agian bai, baina edukiak beharrezkoak dira. Shakespeare irakurriz goza dezakegu, baina aurretik urte batzuk ingelesa ikasten egon ondoren. Eta hori aspergarria da. Niretzat ere aspergarria izango litzateke orain Batxilergoko gaiak ikastea. Baina garrantzitsua da gaietan gogor entrenatzea sormena eduki nahi bada. Gaietan gogor entrenatzen ez bada, ez dago benetako sormenik; egunero telebistan, tertulietan eta abarretan ikusten ditugun ustezko ideia sortzaileak, askotan, lotsarik gabeko ezjakintasunak eta errepikapenak baino ez dira. Entrenamendu horrek sormena benetan funtsezkoa izateko corpusa ematen du. Baina kontuz, entrenamendua oinarriko gaietan, ez xehetasunetan. Zeren bestela, bizitza osoan ikasten egon zaitezke, baina inoiz ekarpen bat egiteko lekura iritsi gabe. Hainbeste ezagutza dago...

Hortaz, entrenamendu gogor eta

oinarriko baten eta sormenaren arteko konbinazioa garrantzitsua da.

Eta noski, lehen esan dudan moduan, garrantzitsua da berezko sormena ezereztu gabe edukitzea. Izan ere, hezkuntza sistema oso arautua baldin bada, berezko sormen hori suntsitzeko arriskua du.

Beraz, nik uste dut gaien oinarriko nukleoa irakatsi behar dela, eta maitasunez.

### **Nola landuko zenuke sormena? Proposamenik ba al duzu?**

Zientzia, beste edozein gauzaren gainetik, sormena da. Eta beraz, oso zaila da errezetak ematea. Ezin da sortzaile izaten erakutsi. Etxe bat egiterakoan aparejadoreak, margolariak, artisauak... denek egiten dituzte ekarpenak. Sortzaile izateko modu asko daude.

Baina berezko sormena, zientzia den sormen hori, ezin daiteke erakutsi, baina bai ikasi. Nola? Eginez. Zientzia ongi egiten ikasteko modu bakarra, ongi egiten dutenen aldamenean egitea da. Horregatik, zientzialari handiak normalean talde handietatik sortzen dira. Eta talde handi bat da pertsona normal bati lehen mailako lana egiteko au-



keramaten dion taldea. Komunitate zientifikoko talde distiratsu horietan ikasten da ezagutza jasotzeko modua, erlazioatzeko modua, komunikatzeko era, transmititzeko era; eta, oso garrantzitsua dena, jokatzeko modua.

### **Talde lanean aritzen ohituta zaude. Zein dira taldeak ongi funtzionatzeko gakoak?**

Taldean lana egitea, baina norberaren exijentziatik abiatuta. Orain mundu guztiak diziplinartekotasunaz hitz egiten du eta % 100ean nago ados, baina beti norberaren diziplinatik abiatuta. Taldean lana egiteak bakarrik ere lana egitea eskatzen du, gero taldeari ekarpenak egiteko. Diziplinartekotasuna inongo arlotan ekarpenik egiten ez dutenen babesleku bihurtzen ari da. Beraz, taldean lan egitea, baina bakoitzak bere lana eginez!

### **Hezkuntza inbertsio bat da, ez gastua. Hori esaten da, baina benetan sinesten al da?**

Gizarteak hezkuntza etorkizunaren bizkarrezurra dela sinesten badu, zaindu ditzala horren arabera hezkuntzan aritzen direnak. Benetan hezkuntza oso garrantzitsua dela sinesten badugu, ezin da onartu edozein ekonomialarik ekonomiako irakasle batek baino gehiago irabaztea.

Herrialde batentzat hezkuntza ona garestia da. Eta horren kontziente ez baldin bagara, inoiz ez dugu hezkuntza onik edukiko. Ezin dira gizarteko arazo guztiak eskolaren eta hezitzaileen gain jarri, eta soldata irigarriekin eduki.

Batzuetan irakasleei zer eskatu behar zaien galdetzen da, eta beldurra ematen dit nire ideala zein den aipatzeak. Zeren zenbait bulegotan dagoen edozein, dedikazio egokiko irakasle bat baino hobeto tratatua ikusten dut. Horregatik, irakasle idealaz hitz egitean, gaur egun ez daukagun oinarri batetik abiatzen naiz; hau da, hezitzaileak eta hezkuntzak behar duten trataera ekonomikoa merezi dutela. Konbergentzia europarrera baldin bagoaz, goazen arlo horretan ere.



### **Hezkuntza sailburu izan zinen 1980-83 bitartean eta Hezkuntza eta Kultura sailburu 1983-84an. Nola ikusten duzu ordutik honako eboluzioa?**

Dauzkagun baldintzak edukita, ongi. Esate baterako, guk zientzia eta teknologian ezarri genituen oinarriak, sus-traitu dira. Horretan inbertitu da, eta ondorioak nabari dira. Ezer ez egotetik zerbait interesgarria izatera pasa gara. Beste kontu bat da ea hori konpara daitkeen herrialde garatuekin. Zentzu horretan, askoz gehiago aurreratu behar da.

Orokorrean autogobernua erabakigarria izan dela uste dut. Autonomia estatutuaren aldeko apustuak merezi izan duela uste dut, nahiz eta erabat ez bete, batez ere Legebiltzarraren hainbat eskumen ezereztatu egin direlako. Ildo horretan, autonomia estatutua bozkatu zenean, ezzen pentsatzen funtsean Madrildik araututako unibertsitatea edukiko genuenik. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren zeregin nagusia autogobernua defendatzean datza, ea orain blindatzen den.

Bestalde, kontzertu ekonomikoaren bitartez herrialdeko fondoak berau altxatzera bideratu dira. Ni Eusko Jaurlaritzara iritsi nintzenean, lehen urtean eskola publikoaren inbertsioak bost aldiz biderkatu genituen.

Alde ahulena lege organikoak dira. Oinarritzko kontzeptuei oso interpretazio zabala egiten zaie, eta horrek autogobernu politikoaren kontzeptua desnaturalizatzen du. Alderdi hori argitu egin behar da. Zeren blindatzen ez bada, nahi dutenean esku hartzen dute. Autogobernuak kalitatezkoa izan behar du, hau da, erabakitze gaitasuna eduki behar du, eta ezin du orain beza-

la esku-hartze zentralaren interpretazio zabalen menpe egon. Horren adibide dugu Unibertsitate Legea. Naturaltasunez onartu da gauza asko gobernu zentralaren kompetentzia zirela, hala ez zenean.

“Euskarazko lehen hitzaldia UEUn eman nuen, eta bigarrena mitin batean, Azpeitian. Hitzaldi hura bukatutakoan lagun bat gerturatu zitzaidan oso ondo egin nuela esanez. Baina, galderak erantzuteko une batean gaztelaniara pasa nintzenean, ‘600 batetik Mercedes batera’ pasatzea bezala izan omen zen”.

.....

Emakumeek zientziaren munduan jasan behar izan duten bazterketa bigarrena izan da. Nobel saria jaso duten emakumeak % 4,4 baino ez dira, arlo guztietan! Bi emakume baino ez dira agertzen fisikaren Nobel saria jaso dutenen zerrendan: Madame Curie da bata, 1903ko Nobel sariaren laurdena irabazitakoa. Eta bestea Goeppert-Mayer, 1963ko sariaren laurdena irabazitakoa.

Royal Society-k, 1862. urtean sortutako zientzia elkarteak, 1945 arte ez zuen emakumerik onartu kideztat. Parisiko Zientzia Akademia 1666. urtean sortu zen eta 1979an onartu zuen lehen emakumea. Madame Curie bera ere ez zuten onartu, nahiz eta Nobel saria birritan irabazia izan.

Euskaldunek garai batean zioten moduan: “*liberté, égalité, fraternité... hiruetatik bat egia balite!*”.



## One Europe, variety of cultures

### Ingelesa hobetzen Etorkizuna ikastolan

Ingelesak garrantzi handia du gaur egun, eta eskoletan ere nabaritu da hori. Kultur aniztasuna ere gero eta gehiago entzuten den kontzeptua da. Gero eta hizkuntza gehiago, gero eta kultura gehiago. Denek denak landu nahi dituzte. Abanto-Zierbenako Etorkizuna ikastolakoek horretarako bide bat aurkitu dute: “One Europe, variety of cultures” proiektua.

Abanto-Zierbenako Etorkizuna ikastolan hizkuntzen trataera integratuz murgilduta dabilta; euskara, gaztelania eta ingelesa lantzen, alegia. Baina nola lantzen dira? Nahikoa? Modu egokian? Galdera horiei erantzun asmoz, ikerketa txiki bat egin zuten euren eskolan hiru hizkuntzen egoera nolakoa zen ikusteko. Gaztelania pila bat lantzen dute: ikastetxe barruan maila formalean, eta ikastetxetik kanpo toki guztietan. Euskara ere arlo guztietan lantzen dute. Baina ingelesa, maila formalean eta hiru saiotan soilik. Hori ikusirik, ingelesari bultzada bat eman behar ziotela ikusi zuten, bai haurrak motibatuz eta bai ingelesak presentzia gehiago izateko.

Horregatik, buru-belarri sartu ziren “One Europe, variety of cultures” proiektuan duela hiru urte. Proiektu europar horrek beste herrialdeetako eskolekin harremanetan jartzeko aukera eskaintzen du, eta



bide batez, harremanak ingelesez egiten direnez, hizkuntza hori lantzeko aukera ematen du.

#### Hasierako burokrazia lanak

Estatu espainiarreko Hezkuntza Ministerioak *Comenius* izeneko deialdi bat ateratzen du Europako ikastetxeekin batera zenbait proiektu aurrera eramateko, eta diru laguntzak luzatzen ditu. Nahi duen oro aurkez daiteke, eta eskaerak eta aukeraketa agentzia batek bideratzen ditu.

Hiru ikastetxeren artean egiten da proiektua edo elkarlana, eta lehen zeregina “ikastetxe bazkide” bi aurkitzea izaten da. Horretarako, Interneten foroak daude, eta berorietan

agertzen dira interesa duten eskolak, “beren burua saltzen”. Nolabaiteko erakusleihoak direla esan daiteke. Zentro bakoitzak zer nahi duen, zer nolako proiektua duen eta abar jartzen du, eta gustuko duena, harekin jartzen da harremanetan. Etorkizuna ikastolako Begoña Garaizar ikasketa buruak eta proiektuaren koordinatzaileak ez dela lan erraza dio. “Guri behintzat dezente kosta zitzaigun bi ikastetxe aurkitzea. Gauak pasa genituen Interneten”. Baina ahaleginak merezi izan zuten, eta Greziako 77th Primary School of Thessaloniki eta Eskoziako St. Timothy’s Primary School-ekin jarri ziren harremanetan.

## Hiru urteko joan-etorriak

Proiektuak hiru urteko iraupena du, eta aurrean amaituko dute. Denbora horretan harreman estuak sortu dira ikasleen eta irakasleen artean, eta denak daude gustura. Ekintza ugari egin dituzte, eta haurrak oso motibatuta ikusi dituztela dio Mari Tere Artetxe zuzendariak. “E-mailak eta eskutitzak idatzi dituzte; errezetak trukatu ditugu, haiek patata tortilla egin zuten, eta guk, Eskoziako eta Greziako jaki bana; Zapatari dantza bidali genien bidez grabatuta, eta bueltan haiek dantza ikasi eta beste bideo bat bidali ziguten; guk gauza bera egin dugu euren dantzekin... Orain egutegi bat prestatzen ari gara Euskal Herriko, Greziako eta Eskoziako egun bereziak jarritz”. Haurrek beste kultura bateko gauzak ikusi dituzte, baina baita hemengoak ere. Mari Tere dioenez, “askotan jakintzat ematen ditugu gauza asko, eta berriz ez dira ezagutzen. Hori gertatu zaigu abestiekin, dantzekin eta mila gauzarekin. Horregatik, gure kultura ezagutzeko eta estimatzeko ere balio izan digu trukeak”.

Ekintza guztiak hiru hizkuntzatan egin dituzte bizkaitarrek: euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez. Hasieran, Euskal Herriari buruzko berriak ez zutela diote, “eta Espainiako ikurrina jarri zuten horma-irudietan. Guk Euskal Herriko ikurrina bidali genien, eta hura zela gurea esan, eta aldatu zuten”.

E-mail, DVD, gutun, bideo, argazki eta beste zenbait baliabideren bitartez egindako harremana bidaia batzuekin estutu da. Urtero pare bat bidaia egin dituzte. Lehendabiziko urtean Euskal Herrian eta Eskozian elkartu ziren, bigarren Grezian eta Eskozian, eta aurrean Euskal Herrian eta Grezian.

Iazko abenduan etorri ziren hiru irakasle eskoziar eta bost greziar



Zierbenara, eta astebete egon ziren. “Astean zehar ikastolan pasatzen zuten denbora gehien, eta Berritzegunea ere ezagutu zuten”, azaldu digu zuzendariak. “Asteburuan, berriz, ingurua ezagutzeko aprobeztatu genuen, eta baita euskal jaia egiteko ere. Gurasoek ere parte hartu zuten, eta asko inplikatu ziren”.

Etorkizuna ikastolako zenbait gauza ikusita harritu egiten omen dira eskoziarrak eta greziarrak. Esate baterako, Begoñak dioen moduan, “guraso erdaldunak dituzten 2 urteko haurrek euskara nola ulertzen duten ikusita harritu egiten dira. Gainera, ez Eskozian eta ez Grezian 2 urteko haurrak ez dira eskolatzen, beranduzago hasten dira”.

Jantokiarekin ere harridura azaldu omen zuten. Greziako eskoletan ez ei dago jangelarik, ordutegi jarraitua egiten dutelako eta eguerdian denak etxera joaten direlako. Eskozian, berriz, bai, jangelak badaude, baina ez hemengoak bezalakoak. Han pizzak, hanburgesak, sandwichak eta horre-



**Europak beste bi ikastetxerekin harremanetan egoteak, ingelese gehiago eta modu praktikoan lantzeko aukera ematen du.**

lakok jaten dituzte, eta McDonalds-en antzekoak omen dira jangelak. “Eta noski, hemen dilistak, indabak eta horrelakoak jaten ikustea arraroa egiten zaie”.

Hemengoek ere hango kulturetako berezitasunekin egin zuten topo,





eta pedagogikoki ere gauza interesgarriak ikusi eta ikasi dituzte. "Zentzu horretan, Eskoziatik askoz gehiago jaso dugu. Greziakoak baino askoz aurreratuago daude", dio Begoñak. "Gure metodologiarekin zerikusia duten gauza asko ikusi genituen Eskozian, gure moduan ari dira lanean zenbait gauzatan. Beste zenbait gaitan, ordea, aurreratuago daude: bullying-a, elkarbizitza...". Grezia desberdina dela dio Mari Terek. "Gu orain dela 15-20 geunden bezala daude han. Halere, han duten bizitasuna eta egiteko era oso interesgarriak dira. Harremanetarako askoz beroagoak dira eta dena emateko prest daude. Horrez gain, harrigarria iruditu zitzaigun metodo tradizionala erabiliz zer-nolako maila lortzen duten ikasleek ingelesean, gaitasun handia dute. Garrantzi handia ematen

diote ingelesari eta kalean ere edonork hitz egiten du, hemen ez bezala".

### Merezi du

Maila pertsonalean lagun handiak egiten dituzte bai ikasleek eta bai irakasleek. Haurrak beste bizimodu batzuk, beste hizkuntza batzuk, beste ohitura batzuk... hau da, beste kultura batzuk ere badauela konturatu dira. Eurodimentsioaz jabetu dira. Eta horrez gain, gure kultura beste modu batera balioesten dute orain. "Benetan zer daukagun ikusi dugu, beste batzuk zer daukaten ere bai, eta guztiak maila berean jarri ditugu. Eta hori oso interesgarria da", dio Mari Tere zuzendariak.

Ingelesa ere gehiago landu dute, eta batez ere, garrantzitsuena dena, beste modu batera. Ez da gela ba-

rruan landutakora mugatu, beste funtzio bat izan du ikasleentzat: beste herrialde bateko lagunekin komunikatzea. Horrek askoz ere interes eta motibazio gehiago piztu du. "Eskutitz bat idazten ari direnean, jolas orduetan, pasilloetan eta abar geldiarazten gaituzte zerbait ingelesez nola esaten edo idazten den galdetzeko!". •





## Haurdun dauden amak haur eskolan Usurbilgo esperientzia

Usurbilgo haur eskolan esperientzia berri bat jarri dute abian: gurasoak edo haurdun dauden amak haurra jaiotzen den unetik joaten dira haur eskolara, eta horrela, egokitzapen prozesuari haurra haur eskolan hasi aurretik ekiten diote. Haurraren eta amaren arteko lotura ez hausteko modu egokia dela deritzote. Eta horrez gain, haur eskolaren eta gurasoen arteko komunikazioa estutu egiten dela.

Ikasturte honetan hasi dira egokitzapen prozesu berri horrekin. 0-1 urteko haurren bi gela dituzte, eta 0-1 txikien gelan jarri dute martxan, hau da, 2005eko apirila eta abendua bitartean jaiotako haurrekin.

Taldeko lehen bi haurrak urrian hasi ziren haur eskolara joaten, baina aurretik, gurasoekin haur eskolan egonak zeuden. Amak oraindik amatasun bakan zeudela aprobetxatuz, presarik ga-



be, nahiz zutenean edo ahal zutenean joaten ziren haur eskolara. Han, beste haurrekin egon, hezitzaileei lagundu, ikusi, ezagutu, zalantzak argitu eta abar egiten zuten. Azken finean, haur eskola ezagutu eta euren seme edo alabarekin batera egon bertan.

Gero, amatasun baja bukatu ostean, haurrak bakarrik utzi zituzten, eta lasai, leku ezagun batean, hezitzaile ezagunekin eta konfiantzazko giro batean. Hala kontatzen du Maier Tapia gurasoak: "Hasieran ordu pare baterako etortzen ginen haurrekin batera. Gero bakarrik uzten genuen ordu erdi batean, eta pixkanaka denbora hori gehituz joan gara. Orain dela hiru hilabete itzuli nintzen lanera, eta oso lasai. Haurra bera ere lasai gelditzen zen. Nola baitaiteko lotura ezarri duela esango nuke". Kontxi Carbayeda ez da oraindik lanean hasi; beraz, egokitzapen prozesu horretan dago. "Azken hilabeteetan

haurrekin batera etorri gara: hasieran ordu t´erdi, gero hiru eta bukaeran sei. Lanean hasten naizenean, lasai hasiko naiz. Haurrekin egon naiz eskolan eta ikusi dut nola moldatzen den. Horregatik noa lasai".

**Kontxi Carbayeda  
gurasoa:  
"Azken hilabeteetan  
haurrekin batera etorri  
gara haur eskolara,  
eta nola moldatzen den  
ikusi dugu. Lasai noa  
lanera"**



**Joxe Ramon Mauduit:**  
“Haurdun dagoen ama  
haur eskolara etortzen  
bada, bertan egoten ba-  
da eta hezitzaileekin ha-  
rremanak izaten baditu,  
gerora jaioko den hau-  
rrari ingurunea ez zaio  
erabat arrotza egingo”



### **Komunikazioa eta lasaitasuna**

Egokitzapen prozesu honekin has- teko arrazoiak argi eta garbi dituzte Usurbilgo haur eskolako hezitzaileek. Betidanik eman diote garrantzia hau- rren eta gurasoen arteko komunika- zioari eta eskolaren eta gurasoen arte- koari. Iaz guraso eskola sortu zuten eta Joxe Ramon Mauduit psikologoaren la- guntzarekin gurasoen zalantzak argi- tzen saiatzen dira. Garrantzitsua ikus- ten zuten ekosistema osasuntsua sor- tzea gurasoen, haur eskolaren, hezi- tzaileen eta haurren artean. Horretara- ko, funtsezkoa ikusten zuten haur es- kolaren eta familiararen arteko horma haustea. Eta hori lortzeko bidea, komu- nikazioa. Horrela, 0-1 urteko haurrekin eta haien gurasoekin komunikazioa sa- kontzeari heldu diote.

Zergatik 0-1eko adin tartean? Hau- rra haur eskolara joan aurretik etxean egoten da, ezaguna den lekuan, gura- soekin, anai-arrebekin edo ez..., hitz batean esanda, babestua. Ondorioz, haur eskolara joaten den lehen ueña nahiko bortitza izaten da, oro har. Adi- tuen arabera, jakina da 0-1 urte bitarte- ko haurrek babesa eduki behar dutela eta une oro haurra ulertua sentituz ge- ro, gerora egingo duen ingurunearen esplorazioa sakona ea kalitatezkoa izango dela, ziurtasuna izanik abiapun- tua. Hori jakinda hasi ziren adin horre- tako haurrekin eta gurasoekin egiten

duen egokitzapen prozesua luzatzen.

Joxe Ramon Mauduiten esanetan, “haurdun dagoen ama haur eskolara etortzen bada, bertan egon eta hezitzaileekin harremanak izan, gerora jaioko den haurrak hizkuntzaren modula- zioa edo tonua barneratu egiten ditu, eta gero, jaiotzen denean, ingurunea ez zaio erabat arrotza egingen”.

### **Hezitzaileak ere lasaiago**

Hezitzaileak ere lasaiago sentitzen dira, haurra pixka bat ezagutzen dute- lako eta lasaiago eta hobeto moldatzen direlako. “Gurasoekin etorri direnean, poliki-poliki haurrak ezagutuz joan ga- ra: zer jateko ohiturak dituen, zer postu- ra, haize asko dituen edo ez...” dio Edurne Urdanpilleta hezitzaileak.

Horrez gain, gurasoekin ere lasai- ago sentitzen direla aitortzen du, eta ba- tez ere harreman estuagoa sortu dela. “Taldea berri bat hartzen duzunean eta guraso guztiak berriak direnean, kosta egiten da hezitzaileen eta gurasoen arteko harremana sortzen. Hauen ka- suan, ordea, aurretik gelara lasai etor- tzeak eta egoteak beste komunikazio bat sortzea ahalbidetu du”.

Gurasoen artean oso giro polita sor- tu da eta beraien arteko iritzi trukaketa ere sarritan ematen da. “Egunero fitxa bat betetzen dugu haurra zer moduz egon den azaltzeko, eta gurasoek atze- ko aldea betetzen dute. Bada, talde ho-

netako guraso guztiak beteta ekartzen dute. Kontziente dira haurren jarrai- pen garrantzitsua dela bai etxean eta bai haur eskolan. Eta hori oso garrantzi- tsua da”.

Gurasoen partaidetza ere igo egin da. Gelara haurrekin etortzean, ez baitira euren semearekin edo alabare- kin bakarrik egoten edo ikusle modura soilik egoten. Parte hartzen dute beste haurrak hartuz, hezitzaileari lagun- duz... “Hasiera-hasieratik hori lantzen bada, hiru urtean zehar partaidetza al- detik fruitua emango duela pentsatzen dugu”.

### **Onura gehiago ere izango dira agian**

Aipatu dituzten abantaila eta lorpen horiez gain, beste batzuk ere egon dai- tzezke aurrera begira. “Aurten 1-2 urte- ko gelan dauden hezitzaileek zerrenda bat egin dute haurrek zein gaixotasun izan dituzten ikusteko eta horien aurre- an gurasoen jarrera zein izan den balo- ratzeko. Datorren urtean, orain 0-1 urte dutenek eta egokitzapen prozesu berri honetan egon direnek 1-2 urte izango dituzte eta konparaketa bat egingo du- gu ea gaixotasun berberak izan dituz- ten edo ez ikusteko”. Izan ere, Maudui- tek dioenez, “0-1 urteetan ahalik eta maitasun eta kontaktu gehien emanez gero haurrari, ondoren gaixotasun gu- txiago azaleratzen dira”. •



# Psikologoaren iritzia



**Jose Ramon Mauduit**

Psikologoa, gorputz terapeuta eta oinarrizko prebentzioan aditua

## Zer dakar egokitzapen prozesua lehenago hasteak?

### - Gurasoen eta haurren arteko harremana ez haustea

Egokitzapen prozesuaren funtsezko oinarria amaren konfiantzari eustea da. Zertarako? Haurren heziketa prozesuan amarekiko kontaktuari eusten bazaio, haurren prozesua ez da hausten. Horregatik da garrantzitsua amak haurra haur eskolan uzten duenean haustura sentazioarik ez sentitzea eta harremana mantentzea. Eta noski, horretarako, inguruneak ere lagundu diezaiola maitasun hori ez hausten.

### - Etxearen eta haur eskolaren artean harreman estuagoa sortzea

Orain arte etxea eta haur eskolaren artean bereizketa bat egon da, bakoitzak bere funtzioak eta rolak oso zehaztuta zituelarik. Egokitzapen prozesu berri honekin beste planteamendu bat egiten da eta gurasoek beste modu batera ikusten dute haur eskola. Beraien artean askoz gehiago komunikatzen hasten dira eta ez dute ikusten haur eskola haurra utzi eta hartzeko gune gisa, beraiek ere parte hartu behar duten espazio baten moduan baizik. Haurrak hori sentituz gero, konfiantza eta patxada sumatzen zaizkio eta horrek aldaketa izugarria ekar dezake. Esate baterako, etorkinen kasuan. Normalean emakume etorkinek ez dute laguntza askorik izaten haurdun daudenean edo haurra jaiotakoan. Aldiz, haur eskolara joaten hasten badira eta beste gurasoekin eta hezitzaileekin erlazionatzen hasten badira, esperientziak, arazoak, gorabeherak eta abar partekatuko dituzte eta lasaitu egingo dira.

Dauden behar sozialak ikusi eta horiei erantzuteko pertsonak prestatu behar dira. Gauzak horrela zaintzen eta mimatzen baldin badira, beste etorkizun bat izango dugu.





## Kamishibai: Japoniako ipuinak... euskaraz



Josu JIMENEZ

IRAKASLEA ETA IKAJA-KO KIDEA

*Kami* hitzak papera esan nahi du. *Kamishibai* hitzak paperezko antzerkigintza. Ipuinak kontatzeko teknika bat da *kamishibai*, japoniarra. Haatik, herrialde horretako mugetatik atera eta munduan zehar zabaltzen ari da gaur egun. Euskal Herrira ere iritsi da eta zenbait ikastetxetan erabiltzen hasi dira. Esperientzia aberasgarria eta erabilgarria dela ikusi dute.

Kamishibai Japonian sortu zen duela 70 urte inguru, 1930eko hamarkadan, eta azken hamar urteotan hedatu da bereziki. Japonian kamishibaiaren teoria sakondu dute eta azkar ari da zabaltzen. Kamishibai-aren artea oso hedatuta dago Asiako hainbat he-

rritan; esate baterako Vietnamen eta Laosen. Ameriketan, bereziki Amerikako Estatu Batuetan hedatu da eta Europan Frantzia, Alemanian, Suitzan, Herbeheretan eta orain, Euskal Herrian.

Eskolan bereziki Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan erabil daiteke, Japoniako ipuinak ez ezik mundu osoko ipuinak kontatzeko eta lantzeko; beste teknika bat da, betiko irudi-liburuaren osagarria.

### Kamishibaiaren ezaugarriak

Hiru ezaugarri edo hiru giltzarri ditu kamishibaiak:

- 1) Beti erabiltzen dugu '**antzezto-kia**' kamishibai egiteko: **butai** delakoa.
- 2) Kamishibaiak istorioa eta irudiak ditu, haurrentzako liburuek bezala, baina kamishibai egiteko beti behar da

**narratzailea**, entzuleei begira jartzen dena eta entzuleei istorioa kontatzen diena.

3) Kamishibaia paper zurruneko orrien bidez egiten da. Orriok aurrean marrazkia eta atzean testua dituzte. Orriak atera eta sartu egin behar dira; hortaz, **mugimendua** ere garrantzitsua da.

Butai-aren ateskak zabaltzean **egiazko mundutik istorioaren mundurako jauzia egiten dute hurrek**, baina kontalaria entzuleei begira dagoenez, entzuleek badakite kontalaria egiazko munduan dutela. Kamishibaiaren bidez haurren kontzentrazioa bermatzen da eta ikus-entzuleei begira izateak narratzaileari aparteko aukera ematen dio komunikazioa gauzatzeko. Narratzailearentzat eroso da istorioa irakurtzen





Etsuko Nozaka Butaiarekin "Otousan" (Aita)  
Indonesiako ipuina kontatzen Huarten.



Huarten dagoen Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan ipuin batzuk jadanik prest daude eskoletan erabiltzeko eta beste batzuk ere laster egonen dira eskuragarri.

### Japonierazko izena

**Ookiku Ookiku Ooikunaare  
Hiyokochan  
Hensi-n  
Tentoumushi no Temu  
Umi ni sizunda oni**

**Ousama sabuchan  
Ahiru no ousama  
Otousan**

### Euskaraz

**Handitzen handitzen  
Txita txikia  
Karratu txikiak  
Pintta marigorringa  
Itsasoan hondoratu zen  
erraldoiaren elezaharra  
Sabu errege  
Ahatea errege  
Aita**

duelako, ez du buruz ikasi beharrik. Haurrek istorioa bereganatzen dute, gozatzen dute eta "xarma" sortzen da, **kyokan**, elkarreragina, interakzioa, sentimenduen konpartitzea; haurrak pozik eta irakasleok ere bai.

Kamishibaiaren teknika egokia da hizkuntza lantzeko. Lehendabizi, entzundakoaren ulermena lantzeko; haurrek ipuina entzuteaz gain, ikusi egiten dute eta horrek asko laguntzen die dena ulertzeko. Hasieran narratzailea irakaslea izaten da, baina ikasleak ere narratzaile izan daitezke; testua atzeko aldean dute irakurgai eta eroso sentitzen dira butaiak ematen dien babespean; gure ikasle-narratzaile horien irakurriaren ulermena eta ahoskera lantzeko aukera ezin hobea. Gainera, *a posteriori*, ipuin berriak kamishibai formatuan sor daitezke, ikasle guztien artean, ahozko adierazpena eta idazketa lantzeko.

Kamishibai beraz, hezkuntzarako tresna ezin hobea da. •

## Japoniarrak Huarten

Etsuko Nozaka japoniarrak kamishibaiaren oinarriak azaldu zituen apirilaren 7an Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroan, Uhartan, (Nafarroa). Etsuko Nozaka IKAJA Elkarteko idazkaria da. IKAJA Kamishibaiaren Nazioarteko Elkarte japoniarra da. Elkarte horren helburu nagusia kamishibaia munduan zehar sustatzea eta zabaltzea da.

Hezkuntza Departamentuaren Euskara Zerbitzuaren eskutik, saio horretan 50 irakasle bako geiagok hartu zuten parte. Etsuko Nozakak bi kamishibai kontatu zituen eta Josu Jimenezek beste bi. Saioa ingelesez egin zen eta aldibereko itzulpena egin zen euskarara. Hurrengo ikasturtean kamishibaia lantzeko eta sakontzeko mintegi bat egiteko asmoa agertu du Euskara Zerbitzuak.



### Informazio gehiago:

IKAJA: <http://www.geocities.jp/kamishibai/index-e.html>  
(japonieraz eta ingelesez)

EIBZ: <http://www.pnte.cf-navarra.es/eibz/>

## Irakasle bakarra ala ikasgai bakoitzak bere irakasle espezializatua?



Zenbaitek uste du galdera motzak erantzun motza dakarrela eta luzeak, berriz, derrigorrez erantzun luzea me-rezi duela. Baina uste ustela besterik ez da hori. Makina bat bider galdera luze batek erantzun motz eta zehatza eskatzen du, eta beste batzuetan, berriz, galdera motz batek erantzuna luzea du atzean eta, hala ere, ezin bukatu. Horrelakoa da gaurko galdera: *irakasle bakarra ala ikasgai bakoitzak bere irakasle espezializatua?* Galderak inuzente itxura badu ere, nekez du erantzun motz eta erraza, nire aldetik behintzat.

Ikuspegi ugaritatik azter daiteke arlo hau. Hasierako galderari erantzun aurretik, beste hiru galdera hartuko ditut abiapuntutzat: 1) Irakaslea(k) zertarako?; 2) Maila bakoitzak zer behar du?; 3) Globalizazioak hezkuntzan ba al du tokirik?

### Irakaslea(k) zertarako?

Gaur egun eskolan irakaslea beharrezkoa dela begi-bistan dago; hain argi ez dagoena da zertarako. Eztabaida luzeetan sartu gabe, esan genezake irakaslearen zereginetako bat ikasleari bere ezagutzen sorkuntzan laguntzea dela (Quinquer, 2004). Gainera, irakasle orok nahi du bere ikasleak ahalik eta autonomoen bilakatzea (Monereo,



Iñaki PIKABEA

PSIKOLOGOA ETA PEDAGOGOA

2001). Eta hori nola lortzen da? Irakasleak ikasleentzako zereginak diseinatzeko dituzten arazoak irtenbideak ematen lagundu beharko dio ikasle taldeari, horretarako urrats batzuei jarraituz.

Hori guztia lortzeko ikasleek elkar-kidetzat ezinbestekoa da, eta horretarako hainbat irizpide errespetatzea komeni da: ikasle gutxi eta gutxienerako heterogeneotasuna talde bakoitzeko, norberaren arrakasta taldearenaren mende egotea, talde lanaren antolaketak onartzea, arduren banaketa, lan taldearen autorregulazioa, eta abar.

### Maila bakoitzak zer behar du?

Helburutzat ikaslearen autonomia lanketa hartuz gero, argi dago maila bakoitzak bere tamainan eta eran erantzun behar diola honi. Bereiz ditzagun, beraz, maila horien egoerak:

### Haur Hezkuntza

Askok diote haurren autonomia 0-6 urte bitartean landu ezina dela, txikiak baitira. Baina hori ez da horrela (Castelló, 2001). Haur txikiak badu pentsatzeko gaitasuna, baita prozedura ugari ikasteko ere, 6 urte oraindik bete gabe izan arren. Haurra, lehen urtetik, gai da bere burua antolatzen ikasteko (joko bidez, eta abar). Bizitzaren lehen urtetik haurrak badu bere jarrera antolatzeko ahalmena. Beraz, Haur Hezkuntzan irakaslearen bitartekotzak haurri bere pentsamenduak ahalik eta konplexuen eta malguen izan daitezkeen lagundu behar dio, eta baita kanporarazten ere, horrela, bere erabakiak kontziente bilaka daitezkeen eta ingurune bakoitzerako erabaki egokiena zein den ikas dezan. Gainera, identitatearen eta autonomiaren aldetik, haurren garapenerako haurri erabakiak hartzen uztea eta ondorioak ikusaraztea, zein baino zein lagungarriagoa da. Aurkikuntza fisiko eta sozialaren aldetik,



haurri kezka interesgarriak bideratu behar zaizkio, konponbidea bilatzeko eta antolatzeko garaian bere ahalmena garatzen joan dadin. Jarduera horiek guztiak elkarreraginean antolatu behar dira; alegia, ingurunearen eta gizartearen ezagutza, komunikazioaren garapena eta norberaren autokontzeptua bateralantzen dira, eta hala landu beharrekoak dira (Jiménez; Martí, 1989). Helburuok gauzatzeko, ezinbestekoa da ikasle bakoitzaren interesak eta erritmoak aintzat hartzea eta, hortaz, ikasgelako aniztasuna errespetatzea eta bultzatzea. Alde horretatik, txokoen bidezko lan antolaketa, besteak beste, oso era egokia izan daiteke egunero ko lanerako.

Laburtuz, esan genezake Haur Hezkuntzan helduok (maisua maistrak barne) izan dezakegun zereginetako bat haurren pentsamenduaren antolaketarako bitarteko izatea dela. Horretan, aintzat hartu behar ditugu honako puntuok: a) Irakaslearen parte-hartze orok haurren autoestimuan eta autokontzeptuan eragina du. Horregatik, ezinbestekoa da haurarekin harreman maitagarria izatea, ezagutza berriak deskubritzen aritzeko segurtasuna izan dezan; b) Irakaslearen jarduerak antolatua izan behar du, eta zenbait aukera eskura izan behar ditu, haurrak behar ahala, bide berriak eskaintzeko; antolaketak malguak izan behar du, unean uneko premiei erantzun ahal izateko, baina ez inprobisaziotik sortutakoa; c) Irakasleak prozesuaren kontrola pixkanaka haurri laga behar dio. Hasieran, irakasleak zehaztuko ditu pentsaerak eta jarrerak. Gerora, haurrak berak ohitu behar du bere erara pentsatzen eta egokien iruditzen zaizkion jarrerak hartzen.

### Lehen Hezkuntza

Maila honetan ere, irakasleek onartzen dute helburu nagusietako bat ikaslea autonomo bilakatzea dela eta, horretarako, pentsatzen irakatsi behar zaiola. Baina nola lortu hori? Jakina da lehen zikloan oinarrizko trebetasunak lantzen direla (irakurketa, idazketa eta aritmetikako buruketak); bigarren, aurrekoak sendotzeaz gain, ezagutza

prozesu altuagoko trebetasunak bultzatzen dira (analisi, informazioaren sintesia eta antolaketa, eta abar); eta hirugarrenean, pentsamendu abstraktuak lantzeari ekiten zaio.

Horretarako guztirako ezinbestekoa da ikaskuntza esanguratsua bultzatzea, bai gertaerei dagokienez eta bai kontzeptuei nahiz prozedura ezagutzei dagokienez. Bestalde, trebetasun metakognitiboen garapena arretaz landu beharrekoa da, bai gauza berriak ikasteko garaian, bai norberaren erregulazio egokia lantzerakoan. Alegia, ikasle autonomoaren soslai bultzatu behar da; eta nor da hori? Labur esanda, ikasteko garaian modu independentean, inguruko laguntzarik gabe, jokatzen duena.

### Bigarren Hezkuntzan

Hemen ere, ikaslearen dependentziaz independentziarako bidea zehaztu beharra dago, eta horretarako, elkarlana baliabide aparta izan daiteke etapa honetan. Ikaskuntza kooperatiboa oso era egokia da ikasgelan giro zoriontsua eta gizartearen aldekoa sortzeko, eta ezinbestekoa, bakarkako eta lagunarteko emaitza afektibo egokiatarako. *Kooperazioa* zentzu zabalean hartzen dugu irizpidetzat: "ikaskuntza gauzatzeko, ikasleen arteko elkarreragina esparru guztietan, bai praktikaldietan, bai parekoen arteko tutoretzetan ere".

Denok dakigu nerabe diren ikasleentzako parekoek zer-nolako garrantzia duten. Nerabezaroan, lagun eta ikaskideen artean bizi izaten diren esperientziak ezinbestekoak dira norberaren nortasunaren garapenerako. Elkarlana bereziki aproposa da goi mailako ezagutzak ikasteko, baita etorkizuneko lan esparruetarako ahalmenak lantzeko ere. Helburuok gauzatzeko, aurretiaz hainbat baldintza bete behar dira:

a) Irakasleen talde lana; b) Prozedura komun erabilera jakintza eremu guztietan; c) Metaezagutzan oinarritutako metodologiaren erabilera sistematikoa; d) Ezagutza estrategikoaren ebaluazioa; e) Tutoretzan oinarritutako koordinazioa (zeresanik ez, irizpideok Ikastetxeko Curriculum Proiek-

**Ikasgai bat irakasle bakar baten eskuetan edo batzuenetan utzi behar ote den galderari erantzuteko garaian, gaiak proiektuak lantzearen aldeko apustua egingo nuke nik. Eta proiektua esatean irakasle taldearen eta ikasle taldearen lana diot (baita gurasoena ere, zergatik ez?).**



tuan jaso behar dira).

Azaldu ditugun kezka eta proposamenei aurre egiteko, ezinbestekotzat jotzen dugu irakasle taldea. Irakasle taldea eskola-antolaketa modu jakin bat da, ikasleei nahiz irakasleei eragiten diena, non bi edo irakasle gehiagok, elkarrekin lan eginez, ikasle-taldeen ardura osoa edo oso esanguratsua duten. Hainbat daturen arabera (Marchesi; Martín, 1998), argi ikusten da irakasleek taldeka lan egiten duten ikastetxeetan ikasleek arrakasta akademiko handiagoa dutela, eta alderantziz: irakaslearen jarduna zenbat eta bakartiagoa izan, orduan eta handiagoa da ikasleen porrota. Baina, zein etekin du taldeko irakasle lanak? Besteak beste, honako hauek: irakaslearen ardura handiagoa bere zereginetan, ikasleei buruzko informazio bilketa handiagoa, beste ikuspegi metodologikoei buruzko jakin-min handiagoa, taldekako erabakien aurrean aldeko jarrera argiagoko (Rue, 2001). Dena dela, irakasle taldea osatzeko, ezinbestekoa da aurretiaz

baldintza batzuk betetzea, hala nola: gutxieneko abiapuntu komun batzuk izatea, taldekideen arteko laguntza eskatzen duen adostutako helburu bat izatea, koordinaziorako gutxieneko eraginkortasuna izatea. Esperientziak argi azaltzen du ikasleak lanean jarrazteko modu eraginkorrena taldeka-ko irakasle lana dela, eta irakasleen autokontzeptua eta autoestimua sendotu egiten dituela, baita ikastetxearekiko atxikipen zentzua handitu ere; horrela, eskolak ikaskuntzarako gune edo komunitate bilakatzen dira.

### Globalizazioak ba al du tokirik hezkuntzan?

Hain modan dagoen kontzeptu honen hezkuntzan ere eraginik ba ote duen aztertu beharko genuke. Gure ustez, guk nahi ala ez, globalizazioarekin topo egingo dugu. "Globalizatu" beharrean gaude eta, gurpil zoro baten antzera, "globalizatuko" gaituzte. Eta zer da, zentzu onean, globalizazioa hezkuntzan? Besteak beste, irakaskuntza osatua da, diziplinen aniztasuna nahiz diziplinartekotasuna aintzat hartzen dituen. Batetik, egungo komunikazio moduek eta informazio ugariak gure ikasleak zenbait gauzatan trebatzera bultzatzen gaituzte: ezagutzak eskuratzera, adimena eta iritzi kritikoa lantzerara, nork bere burua ezagutzera, irudimena eta nork bere ahalmenak garatzera, arduratsu izatera, komunikatzen jakitera, ikuspegi orokorra lantzerara, eta abar. Hori dena lantzeko ezinbestekoa zaigu ikasleari autonomo bilakatzen laguntzea.

Globalizazioaren inguruan irakaskuntzaren hainbat ikuspegi bil daitezke (Hernández, Ventura, 1992):

- Globalizazioa ikasgaien baturagisa.
- Globalizazioa diziplina ugariaren nahasketa gisa.
- Globalizazioa ikaskuntzaren egitura psikologiko gisa.

Ikuspegiok ez dira guztiz elkarren kontrakoak. Bateragarri izan daitezke, hein handi batean.

Tradizioz, hezkuntzako profesionalek (irakasleak, psikologoak, pedagogoak...) irakaskuntza-ikaskuntzako prozesuen ikuspegi murriztua izan dute: irakasle-ikasle artera mugatzen zen

hezkuntza. Ingurunea, ikasleen arteko harremana, irakasleen artekoa... ez ziren aintzat hartzen. Bakarkako lana zen nagusi. Are gehiago, profesional batek "beste baten ikasle taldean" parte hartzea gaizki ikusia zegoen. Egungo hezkuntzaren ikuspegiak talde hausnarke-ta eta talde lana baliatzen ditu hezkuntzarako, edo baliatu beharko lituzke. Harreman sistemikoak biltzen dituen ingurune gisa hartzen da aintzat hezkuntza. Ezin da ikasle bat, irakasle bat, herri bat, hiri bat, ama, aita... bakarka tratatu, ikuspegi globalizatua ezinbestekotzat jotzen da (De Pablo, 1992). Alde horretatik, elkarlana ezinbestekotzat jotzen dugu, ez soilik ikasleen artean, baita irakasleen artean ere.

Eta nola gauzatu daiteke hori? Globalizazioa eta autonomia bultzatzeko bide eraginkorrenetako bat, ez bakarra, *proiektuetan oinarritutako irakaskuntza* da.

Proiektuen bertuteen artean, honako hauek azpimarratu nahi genituzke (Alvarez, Santos, 1996):

- Zeharkako harremanak indartu eta eguneratu egiten ditu.
- Elkarlana eta batasuna bultzatzen ditu.
- Partaideen ahalmenak afektuen bidez lantzen dira, eta ez aginduen bidez.
- Heldutasuna garatzen da.
- Gehiegizko hierarkizazioaren ordez, norberaren autonomiari eta sormenari leku gehiago uzten zaio.

Oso modu laburrean autonomiaren eta irakasle taldearen garrantzia azaldu ostean, gatozen hasierako galderara: *zer da hobe, ikasleekin irakasle bakarra ala batzuk aritzea?* Lerro hauetan ikuspegi asko geratu dira bazterrean (garapenaren psikologiaren ekarpenak, eskola txikien esperientziak eta abar). Ezin dena bildu orri gutxitan. Hala ere, luze aritzeko gaia izan arren, lerrook nolabait hasierako galderari erantzun nahi diote. Alegia, ikasgai bat irakasle bakar baten eskuetan edo batzuenetan utzi behar ote den galderari erantzuteko garaian, gaiak proiektu lantzearen aldeko apustua egingo nuke nik. Eta *proiektua* esatean irakasle taldearen eta ikasle taldearen lana diot (baita gurasoena ere, zergatik

ez?). Dударik ez proiektu bakoitzaren ezaugarrien arabera, arlo jakineko irakasle adituaren protagonismoak handiago izan beharko duela, baina beti ere gainerako profesionalekin batera osatutako testuinguruan. Proiektuetan Oinarritutako Irakaskuntza ez da lana errazteko modu bat; alderantziz akaso, lan ugari eskatzen duen irakaskuntza da, baina ikasle sendoagoak bilakatzeko ere bat ere bada. Eta, azken batean, gure ikasleek globalizazioarekin topo egin behar badute, non hasiko dira trebatzen hobeto eskolan baino, irakasleak eredu direla? •

### Bibliografia

- ALVAREZ, M. ; SANTOS, M.: *Dirección de centros docentes*, Escuela Española, Madril, 1996.
- BARCIA, M. J.: "¡Que circule la savia! El trabajo en equipo", *in Aula*, 150 (martxoa), Grao, Bartzelona.
- CASTELLÓ, M.: "Enseñar a pensar de forma personal: primeros pasos", *in Aula de Innovación Educativa*, 100 (2001), 11-15.
- DEPABLO, P. et al.: *Diseño del Currículo en el Aula*, Mare Nostrum, Madril, 1992.
- HERNÁNDEZ, F.; VENTURA, M.: *La organización del curriculum por proyectos de trabajo*, Grao, Bartzelona, 1992.
- JIMÉNEZ, N.; MARTÍ, L.: *La educación infantil*, Laia, Bartzelona, 1989.
- LOPEZHDEZ, Ana: "Trabajar con los compañeros para mejorar la educación", *in Aula*, 150 (martxoa), Grao, Bartzelona.
- MARCHESI, A.; MARTÍN, H.: *Calidad de la enseñanza en tiempos de cambio*, Alianza, Madril, 1998.
- MONEREO, C.: "La enseñanza estratégica. Enseñar para la autonomía", *in Aula de innovación Educativa*, 100, (2001), 6-9.
- QUINQUER, D.: "Estrategias metodológicas para enseñar y aprender ciencias sociales: interacción, cooperación y participación", *in Aprender autónomamente*, Grao, Bartzelona, 2004.
- RUE, J.: *La acción docente en el centro y en el aula*, Síntesis, Madril, 2001.

Bide eginean jarraitzen dugu zuen  
ekarpenekin eta parte-hartze  
handiagoarekin aberastu nahi dugularik.



Hik Hasi proiektua irekia  
den heinean, interesa duen edonoren  
parte-hartzea gustu handiz hartzen dugu.

Jar ezazu zure aletxoa euskal  
hezkuntzaren  
aldeko ekimen honetan.

maiatza

berriak



# Legeak lege, ikastolek euren hezkuntza proposamena eraikitzen jarraituko dute



300 parte-hartzailetik gora bildu dira Ikastolen Elkartearen aurtengo jardunaldi pedagogikoetan. **2005-2015eko ikastola: hezkuntza proposamen bat eraikitzen** izenburupean egin dira, helburu garbi batekin: datorren hamarkadari begira, gizartearen gero eta abiada azkarragoan gertatzen ari diren aldaketei modu egokian erantzun diezaiekeen hezkuntza proposamen koherentea eraikitzeko lehen urratsa ematea.

Ikastolen Elkarteko Zuzendari Pedagogikoen Mintegian ikusi zen aipatu proposamena egiteko beharra. Izan ere, etortzen diren lege eta aginduen aurrean, ikastolek euren proposamena eraikitzeko beharra sumatzen zuten. Horrez gain, gai horien inguruan edozein administrazioren aurrean ordezka zitzaketen talde bat ere antolatu nahi zuten. Ondorioz, 2005-2015 Ikastola



izeneko taldea sortu zuten. Berau ibili da proposamenaren zirriborroa egiten, eta jardunaldietan horixe aztertu da parte-hartzaile guztien artean.

Egindako lanaren ondoren, zenbait ideia eta proposamen azpimarratu dira.

Hasteko, legeak lege, ikastolek hezkuntzan egin nahi duten bideari emango diote garrantzi nagusia eta horretarako, garatzen dituzten proiektuen arteko lotura eta koherentzia era berezian zaindu beharra ikusten dute.

Etorkizunari begira, gako nagusietako bat zera ikusten dute: euren hezkuntza proposamenaren bilakaeraren eta gizartearen aldaketak eskatzen duen egokitzapen trinkoaren arteko oreka mantentzea.

Aurrerantzean sakondu beharreko erronkak, berriz, hauek dira:

- Sorreratik ikastolek dituzten helburuei, identitate ezaugarriari, elkarlari eta autonomiari tinko eustea.

- Hezkuntza komunitatearen zentzua eta bereziki guraso eta irakasleen elkarlana sendotu beharra.

- Eskola inklusiboaren oinarriak sendotzea eta ikasle atzeritarren eskolatzea marko horretan kokatzea.

- Hezkuntza etapa desberdinetako helburuak eta oinarri metodologikoak etengabe berraztertzea, egokitzea, talde bezala garatzen dituzten proiektuekin loturan (euskal curriculum, hezkuntza proiektua, ikasmaterialgintza, IKT).

- Sortzen zaizkien erronka berriei erantzuteko behar duten prestakuntza sarea eratzea eta proiektu sendoa antolatzea, ikastolen premiak ardatz gisa harturik.

Gogoetari hasiera eman zaio, eta hurrengo hilabeteetan gehiago sakontzen jarraituko dute. Lan honi amaiera emateko, datorren ikasturtea ere erabakigarria izango dela iragarri dute.



# Jaiak eta ospakizunak

Maiatzaren 7an  
Ikas-Biren jaia Donibane Lohitzunen



Maiatzaren 14an  
Herri Urrats  
Senperen

Maiatzaren 21ean  
Euskal Eskola Publiko Berriaren XI. Jaia Takone-ran (Iruñea): *Herritik jaiotako eskola!*



Maiatzaren 28an  
Ibilaldia Elorrión:  
*Batzen gaituena*

Ekainaren 4an  
Euskal Eskola Publikoaren 15. Jaia Oñatin: *Mugak gaindituz, herriak biribilduz.*



Ekainaren 11an  
Eskola Txikien jaia  
Igeldon: *Eskola txikiak bizirik, herri txikiak bizirik.*

Ekainaren 18an  
Araba Euskaraz  
Gasteizen: *Barruan daramagu.*



# Reggio Emiliara hik hasik antolatutako bidaia



## Egitaraua

Urriak 11, asteazkena  
Euskal Herritik Italiarako bidaia.

Urriak 12, osteguna  
Goizean  
Aurkezpena.  
Arratsaldean  
Eskolak bisitatu.

Urriak 13, ostirala  
Goiz eta arratsaldean  
Eskolak bisitatu.

Urriak 14, larunbata  
Goizean  
Adin desberdinetako hurrei zuzendutako proiektuen azalpena.  
Arratsaldean  
Mahai ingurua.

Urriak 15, igandea  
Italiatik Euskal Herrirako bidaia.

## Bidaia aukerak

Bisitari bakoitzarengatik eskatzen dutena..... 468 euro

Bidaia hegazkinez..... 375 euro  
Hegazkinez Bolognara edo Milanera + Reggio Emiliara autobusez.

Hotela..... 320 euro  
Banakako gela, hiri erdigunean, 3 izar, 4 gau, loa eta gosaria.

**GUZTIRA..... 1.163 EURO**

Informazio gehiago: [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

*Oharra: bisita HIK HASIren bidez egin behar da. Gainerakoa, HIK HASIren bidez edo norberak bere kontura egin dezake.*

Antolatzaileen esku gelditzen da programa honi behar diren aldaketak egitea.

## Ikastaroak

Familia Konstelazioak: **maiatzak 29 eta 30, Donostiako Jarein Psikoterapia zentroan, 16:15-20:45, 80 euro.**

Pedagogia Sistemikoa: **maiatzak 30 eta 31, Donostiako Jarein Psikoterapia zentroan, 10:00-20:00 eta 10:00-14:00 hurrenez hurren, 125 euro.**

Familia Konstelazioak haurrengan eta nerabeengan: **ekainak 1, Bilboko Barceló hotelean, 10:00-20:00, 85 euro.**

Emalea: Angélica Olvera, Familia Sistemikoa hezkuntza arloan garatzen eta ikertzen nazioarteko aditua, Gestalt, PNL, psikologoa eta Bert Hellingerren Familia Konstelazioetan eta Komunitate Psikologian aditua (ikus HIK HASI 107. zenbakia, 16-23).

Informazio gehiagorako: **943 466 902 eta 637 893 079**



# Hezkuntza Berrizatzeko Proiektuei buruzko jardunaldiak Donostian

Maiatzaren 4 eta 5ean egingo dira Gipuzkoako Berritzeguneez antolatuta Hezkuntza Berrizatzeko Proiektuei buruzko V. Jardunaldiak Donostiako Miramar Jauregian.

Maiatzaren 4ko goizean "Eskola inklusiborantz" gaiaren inguruko esperientzia eta proiektuak aurkeztuko dira. Arratsaldean, aldiz, "Europar dimentsioa eta ikasleen eta irakasleen konpententziak" izango da gaia.

Maiatzaren 5ean goizez egingo dira aurkezpen guztiak eta bi gaien ingurukoak izango dira: "Hizkuntzen trataera" eta "Zientzia, teknologia eta garapen iraunkorra".

Izena emateko epea apirilaren 27an bukatzen da, eta [www.elkarrekin.org](http://www.elkarrekin.org) web orriaren bidez egin behar da. Orri berean informazio gehiago aurkituko duzue, jardunaldien *on-line* informazioa barne.

## Psikomotrizitateko sentsibilizazio ikastaroak

UNEDeko Psikomotrizitate Eskolak Heziketa praktika psikomotrizatean formatzeko bi urteko ikastaroa antolatu du. 2007ko urtarriletik 2008ko abendura izango da.

Ikastaro hori egiteko, ordea, aurretik eskola horrek antolatutako Sentsibilizazio ikastaroren bat egin behar da. Horietako bi maiatzean izango dira: maiatzaren 5, 6 eta 7an Bilbon eta maiatzaren 26, 27 eta 28an Pasaian. Matrikula epea ikastaro bakoitza hasi baino zortzi egun lehenago amaituko da.

Informazio gehiagorako:  
Tel.: 943 769 033  
[mberriozabal@bergara.uned.es](mailto:mberriozabal@bergara.uned.es)  
[www.uned.es/ca-bergara](http://www.uned.es/ca-bergara)

# Uztaila osoan euskarazko ikastaroak UEUren eskutik



UEUK eskaintza zabal bezain interresgarria egin du aurtengo **udako ikastaroetan**. 33. ikastaldia hiru lekutan egingo da: Eibar, Baiona eta Iruñean. Denbora aldetik, ia uztaila osoan izango dira aukeran euskarazko ikastaroak.

Hona hemen ikastaro eskaintza:

### Eibarren uztailaren 3tik 7ra

- **Ekonomia:** *Beste mundu bat posible eta beharrezkoa da. Autoalternatibaren aurkezpena eta garapena.* Uztailak 4-5.

- **Kazetaritza:** *Tokiko telebistagintzaren ereduak eta programak. Euskarazko tokiko telebistaren azoka.* Uztailak 3-4.

- **Literatura:** *Literaturaren xarma: tailer praktikoa.* Uztailak 6-7.

- **Osasuna:** *Osasun arloko enpresa bioteknologikoak.* Uztailak 4-5.

- **Psikologia:** *Dementziak, alzheimerra eta familia.* Uztailak 3-5.

### Baionan uztailaren 10etik 14ra

- **Antzerkilaritza:** *Barre terapia.* Uztailak 10-14.

- **Kazetaritza:** *Kazetaritzaren erronkak.* Uztailak 10-14.

- **Nazioarteko gaiak:** *Nazioarteko geopolitikan aktore berrien agertzea.* Uztailak 11-13.

- **Pedagogia:** *Psikomotrizitate praktikoa.* Uztailak 10-14.

- **Psikologia:** *Erreminten gela: elkarrekin harremanak izateko trebetasunak garatzen.* Uztailak 11-12.

- **Sexologia:** *Sexualitatea: galdutako argiaren bila.* Uztailak 10-14.

- **Talaiatik-1:** *Erreflexologia tailerra.* Uztailak 11-13.

- **Talaiatik-2:** *Naturako erritmoen taupada sentitu.* Uztailak 10-14.

- **Talaiatik-3:** *Oreka emozionalerako terapia naturalak.* Uztailak 10-14.

- **Talaiatik-4:** *Sagardoa, txotxetik haragokoa. Gustu baduzu...* Uztailak 12-13.

- **Yoga:** *Tantra, emetasunaren gozamina.* Uztailak 10-14.

### Iruñean uztailaren 17tik 23ra

- **Artea:** *Papera tailerra: artearen eremuaren inguruan.* Uztailak 17-21.

- **Eusko kultur gaiak:** *Autoeraketa (antropologikoa, soziologikoa eta politikoa) gaurko Euskal Herrian.* Uztailak 17-21.

- **Informatika:** *Web orrien irisgarritasuna: teoria eta praktika.* Uztailak 17-21.

- **Kimika:** *Industria kimikoa eta ingurumena.* Uztailak 17-21.

- **Literatura:** *Gu, besteak eta ni. Erdiguneak eta periferiak gaurko literaturan.* Uztailak 17-21.

- **Psikologia:** *Kirolaren psikologia: oinarri teorikoak eta aplikazio praktikoa.* Uztailak 18-19.

- **Psikologia:** *Komunikazio eragin-korraren artea.* Uztailak 17-21.

- **Sexologia:** *Sexuen esanahiak eta esan nahiak.* Uztailak 17-21.

- **Soziolinguistika:** *Erronka berriak euskararen erabileran.* Uztailak 18-20.

- **Soziologia:** *Euskal Herriaren dimentsio europarra.* Uztailak 17-21.

- **Talaiatik:** *Zentzumenak, gorputza eta idazkera lantzeko tailerra.* Uztailak 18-20.

**Matrikula epea** maiatzaren 1etik ekainaren 18ra izango da.

### Informazio gehiagorako:

Irati Iciar  
943 82 14 26  
[ikastaroak@ueu.org](mailto:ikastaroak@ueu.org)  
[www.ueu.org](http://www.ueu.org)



# Hik Hasi udako topaketak



## Hainbat arloko 36 ikastaro eskainiko dira aurten

- 1. Heziketa sortzailea**
  - \* Marga IÑIGUEZ. Sormenean aditua.
- 2. Ahozotasuna**
  - \* Andoni EGAÑA. Bertsolaria.
  - \* Joxerra GARZIA. EHUko irakaslea.
- 3. Begirada islamari**
  - \* Miren CAMISÓN. Filosofoa.
  - \* Dabi LAZKANOITURBURU.
  - \* Txente REKONDO. GAINeko kidea.
- 4. Historia irakaskuntzan**
  - \* Gurutze EZKURDIA. EHUko irakaslea.
- 5. Nola landu elkarbizitza**
  - \* Xabier ITURBE. Psikologoa.
  - \* Iñaki KARRERA. EHUko irakaslea.
- 6. Familia eta eskola**
  - \* Edurne GALINDEZ. HUHEZIKo irakaslea.
- 7. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak**
  - \* Iñaki PIKABEA. EHUko irakaslea.
- 8. Dibortzioa eta eskola**
  - \* Izarne FERNÁNDEZ DE OSA. Psikologoa.
  - \* Nilda GORVEIN. Abokatua eta psikoterapeuta.
  - \* Pilar LEGARRA. Psikologo klinikoa.
  - \* Monica SARALEGI. Psikopedagogoa.
- 9. Harremanak gelan**
  - \* Amaia AGIRRE. GEUZeko par-taidea.
- 10. Adimen emozionala**
  - \* Ibon DE LA CRUZ. Psikologoa.
- 11. Coaching**
  - \* Mirari BEREZIARTUA. Coaching.
  - \* Nerea REDONDO. Aldaketapuntua.
- 12. Heriotza heziketan**
  - \* Patxi IZAGIRRE. Psikologoa.
- 13. Ordenagailu gelara?**
  - \* Fultxo CRESPO. Irakaslea.
- 14. Publisher**
  - \* Mikel FERNANDEZ. Irakaslea.
- 15. Photoshop**
  - \* Xabier LERTXUNDI. Irakaslea.
- 16. Linux**
  - \* Elena LAZKANO. EHUko irakaslea.
  - \* Aitor SOROA. EHUko irakaslea.
- 17. Neobook sakontzen**
  - \* Jose Manuel BELTRAN. Irakaslea.
- 18. Blogak irakaskuntzan**
  - \* Jokin LACALLE. Irakaslea.
  - \* Mikel ETXARRI. Irakaslea.
- 19. Bideoa**
  - \* Pelajo EIZAGIRRE DE GARATE. PADEko errealizadorea eta gerentea.
- 20. Literaturatik zinemara**
  - \* Katixa AGIRRE. EHUko irakaslea.
  - \* Xabier MENDIGUREN ELIZEGI. Idazlea.
- 21. Idazketaren didaktikarantz**
  - \* Iruñe IBARRA. EHUko irakaslea.
- 22. Ipuinak irakurri-kontatu**
  - \* Pello AÑORGA. Ipuin kontalaria.
- 23. Disgrafiaren tratamendua**
  - \* Mikel HARANBURU. EHUko irakaslea.
- 24. Txillida**
  - \* Amaia FERNÁNDEZ. Txillida-Leku Museoko Heziketa Arloaren arduraduna.
- 25. Antzerki clown-a**
  - \* Joserra FACHADO. Aktorea.
- 26. Antzerkia**
  - \* Mikel SARRIEGI. Aktorea.
- 27. Psikomotrizitatea**
  - \* Elena HERRAN. Psikologian doktorea.
- 28. Psikomotrizitatea gimnasia**
  - \* Rikardo ACEBO eta Alvaro BEÑARAN. Psikomotrizistak.
- 29. Jolas kooperatiboak**
  - \* Maite GARAIGORDOBIL. EHUko irakaslea.
  - \* Ainhoa DURÁ. Haur psikologoa.
- 30. Birziklatuz sortu**
  - \* Amaia ZINKUNEGI. Arte Ederretan lizentziatua.
  - \* Ines GEREKA. Biologian lizentziatua.
- 31. Musika Hezkuntza Berezian**
  - \* Jose Ramon VITORIA. Arrasate Musikal musika eskolako irakaslea.
- 32. Musikoterapia**
  - \* Aitor ZENARRUZABEITIA. Musika irakaslea, logopeda.
- 33. Biodantza**
  - \* Bixen ASTIASUINZARRA. Irakaslea.
- 34. Dantza afrikarra**
  - \* Ainhoa CARRERA. Dantza irakaslea.
  - \* Aintzira GOROSABEL. Perkusio irakaslea.
- 35. Haurrentzako masajea**
  - \* Ramon MAUDUIT. Psikologoa eta prebentzioan aditua.
- 36. Miramongo Zientzia-Museoa**
  - \* Mikel ETXANIZ. Irakaslea.
  - \* Emiliano MUJIKA. Irakaslea.

# argitalpenak



**EIKFren aldizkaria**  
**4. zenbakia**  
**EIKF**

Euskadiko Irakaskuntza Kooperatiben Federazioak laugarren alea plazaratu du, "Hezkuntza kooperatibak, LOE lege berri bat" izenburupean. Bertan, LOEren inguruan hainbat gogoe-ta biltzen ditu, partaidetza, finantziazioa, euskal curriculum, atzerriko hezkuntzak, formazioa, autonomia... bezalako gaietatik abiatuz •



**EAEko irakaskuntzaren egoerari buruzko txostena (2002/2004)**  
**EUSKADIKO ESKOLA KONTSEILUA**

Txosten honek EAEko hezkuntzaren egoera baloratu nahi du, 2002-2004 artean. Hainbat lege xedapen, haur eskolen ezarpen eta antolamenduaren, plangintzaren, giza baliabideen, ikasketeen, eta finantziazioaren inguruko emaitzak eta gogoetak biltzen ditu •



**Euskararen erabilera eta transmisioa**  
**EUSKO JAURLARITZA**

Bi inguru desberdinetako ikerketak dira. Batak, Donostiako Santo Tomas lizeoko ikasle ohien adibidea ematen digu eta besteak, Gasteizko Olabide ikastolakoena. Bakoitzean, euskararen erabilera familiaren esparruan, familiarik kanpoko esparruetan, euskararen erabilaren tipologiak eta seme-alabekiko transmisioa aztertzen da •



**Sexua noiznahi**  
**Luis Elberdin**  
**GAIK**

Hezkuntza arloan Emakunde saria jaso duen liburu hau praktikoa da batez ere. Gai askotarikoak jorratzen ditu, hala nola sexuaren testuinguru ebolutiboa, masturbazioa, gorputza, kontrazepzio metodoak, hainbat mito, aniztasun sexuala, jolas sexualak... Sexu hezkuntzarako material erabilgarria •



**Amaren titi-xorroak**  
**Joxan Ormazabal**  
**ELKAR**

Hiru osagai ditu liburu honek: ipuin barregarriak nahiz serioagoak; umorezko poemak eta filosofikoagoak; eta haikuak, denak zehatz-mehatz neurtuak (17 silaba hiru lerrotan banaturik). *Bihotza zubi* eta *Txoko txiki txukuna* liburuetan markatutako bideari jarraitzen dio egileak •



**Letra zopa**  
**Amaia Crespo**  
**EREIN**

Rakeli ez zaizkio batera gustatzen ez zopa ez berdurak, eta gurasoek ez dakite zer egin. Gaur letra zopa jan behar du. Zer asmatuko ote du ez jateko? Amaia Crespok eta Ramon Plak, letrekin eta marrazkiekin, jatea baino gehiago irakurtzea gustatzen zaion neska baten abenturak kontatzen dizkigute •

# ... goza nazazu gehiago

## Ez da aski euskaraz irakastea, euskaraz aritzeko bideak jarri behar dira



**Helena Baraibar eta  
Kristina Boan**  
Ikastolen Elkarte

Erabilera ez dabil ezagutzaren parean. Horrela bada, eskolaren lehen egitekoa euskararen ezagutza osoa bermatzea bada, bigarrena **euskarazko harreman sareak sortzea** izan behar du. Horretarako, eskola bakoitza mikroespaziotzat jo eta gizartean orokorrean hizkuntzaren erabilera baldintzatzen duten faktoreak (sozioestruturala, psikolinguistikoa, hizkuntzarekiko jarrera eta motibazioa) aintzat hartu behar dira. Horrela baino ez dugu lortuko eskola ikasleen komunikazio behar guztiak aseko dituen gune izatea. Bere esparruan **euskaldunen dentsitatea areagotzea** izan behar du beraz, eskola ororen helburua.

Horretarako, norbanakoaren (hez-kuntza komunitateko kide bakoitzaren) jarrera, interesa eta gaitasuna garatuz iritsi behar dugu harremanetako hizkuntza euskara izatera. Eta eragin

beharreko guneak izango ditugu gela barruko espazioa ez ezik, atsedendiak eta eskolaz kanpoko jardunak ere, azken bi horietan gauzatzen baitira gazteen arteko harreman libreak.

Azterketa soziolinguistikoek diotenez, kideen artean harreman hizkuntza automatikoki hautatzen bada, garbi dago esparru honi eskaini behar zaion arreta zenbaterainokoa izan behar duen. **Ohitura aldatzea da kontua edo ohitura sortzea.** Gure lan estrategiak helburu horren zerbitzura jarri behar ditugu hezkuntza sistemaren lehen urteetatik. HH-LHTik euskara ikasteko ez ezik lagunekin jolasteko balio duen hizkuntza izan behar du, denbora pasakoa, kiroleetakoa...

Hezkuntza sisteman aurrera goazen heinean, zailtasun edo eragozpen handi bat badugu: adina. Gazteekin lan egiten dugunok (DBH-DBHO) badakigu hori.

Horregatik saiatu behar dugu bereziki. Ahalbidetu behar dugu gazteok bizitza esperientzia zirraragarriak eta gogozkoenak euskaraz izan ditzaten. Bistanda, eskolako lagun taldean euskararen hautu automatikoa egiteko ohitura sortu egin behar dugula. Eta nola ez, arrakastaren eta modernitatearen balioak erantsi behar dizkiogula euskarari.

Egiteko funtsezko horretan lagungarri izango zaizkio eskolari tokian tokiko Biziberritze Planak eta horien barsean garatutako bideak.

## ZER EGIN

### Nola jorratu harreman sareak eta nola sortu ohiturak

- Egiteko pedagogikoaren baitan kokatu behar ditu eskolak honako esparruak: errekreo garaiak, eskola orduz kanpoko kirol eta kultur jarduerak, bazkal garaiak, garraio zerbitzuak, haurtzaindegi eta zaintza zerbitzuak, udaleku irekiak, aisialdi taldeak...

- Jarduera horietako begirale eta arduradunen hizkuntz gaitasun ego-kia eta erabilera bermatu behar ditu.

- Ahalik eta eskaintza zabalena bideratu behar du familien beharrei eta ikasleen gustuei erreparatuta.

- Edozein delarik ere ekintza, hizkuntz helburu zehatzak erantsi behar dizkio. Eta helburu horren zerbitzura estrategia jakinak jarriko ditu abian: paisaia euskalduntzea, euskal musika entzutea, euskal irratia entzutea, kirol hiztegi tekniko euskaraz erabiltzea, hiketa erabiltzea, halako esamolde zabaltzea, halako akats bideratzea... edo harremana euskara hutsean izatea.

- Hitzun neurketak burutuko ditu (urria-maiatza) eta hiruhilekoaren amaieran balorazioak egingo.





**Olatz BEOBIDE**

AKTOREA

Nire bizitzako "lehenengo aldietan" pentsatzerakoan, askotan eskola garaiak etortzen zaizkit burura... Nire lehenengo eguna, nire lehenengo musua, gutxiegi atera nuen lehenengo aldia, nire lehenengo lagun mina, lehenengo hilekoa, lehenengo botazioak, lehenengo dantzaldia, lehenengo antzerki emanaldia, lehenengo iraultza...

Hain sustraituta dago eskola nire bizibihotzetan, non pentsatze hutsak barrea eta poza ekartzen dizkidan.

Hainbeste ikasten da eskoletan, bai liburuetatik..., eta are gehiago esango nuke nik, bizitakotik!

Liburuetan gauza eder asko ikasi genituen, eta zalantzarik gabe, esango nuke asko ikasten genuela irakaslea gustukoa genuenean. Hau marka, ezta?

Baina egia biribila da; irakasleak eskola onak eta atseginak ematen zituenean, eskolatik kanpo ere liburu eta apunte haiek

## Ikastolako oroitzapenak

errazago zabaltzen ziren... Zorionez, denok ez gara eta ez ginen berdinak, eta nik Literaturakoa edota Etikakoa nituen maite; eta beste hark, Fisikakoa edota Matematikakoa.

Baina ikastoletako irakaskuntza ez da liburuetara edota programen edukietara mugatzen, eta hor hasten dira osatzen nire oroitzapenak.

Izan ziren, nola ez, une latzak, norbaiten lagun onena izatetik taldeko ahate itsusi bihurtzen zinen aste gogorrak. Inork ere ulertzen ez zintuen eta norekin hitz egin ere ez zenekien garaiak. Gurasoei kontatzeko modukoak ere ez zirenak, eta irakasleak beste gauzez kezkatzen ziren uneak, edo hori zen gure ustea (usteak beti ustel, ez da hala?). Zorionez, nire kasuan, zenbait alditan mototsetik tiraka ibili baninduten ere eta lasterke-ta batzuk egin behar izan banituen ere, modaz pasanintzen eta beste bati egokitu zitzaion. Hain arin pasatako hura (ez pentsa, ez, orduan hain laburra egin zitzaidanik...) ez dut ez hain arin ahaztuko.

Eta gaur egun, guraso moduan, adi nago, oso adi, nire maiteñoek jakin dezaten egun beltz horiek nire-

tzat goi mailako interesa dutela, eta irakasleak ere horretaz kezkatzen direla. Eta ez dezaten ahantz lagun jarriera aldakor horiek txotxolokeria garrantzitsuak baino ez direla eta beste lagun batzuk hortxe daudela zain, ezker-eskuin.

Baina, bizitza bera gutxienez erdi bete-ta dagoela ikusten duten horietakoa naizenez, ez dut ikastolako oroitzapena memento blues batekin lotu nahi, eta horra ikastolarekiko nire eskerrik beroena: orain 20 urte pasa, antzerkia ikasteko aukera eman zidan.

Horri esker, nire buruari "nik handitan aktorea izan nahi dut" esan ahal izan nion, eta buru-belarri bete ahal izan dut desio hori. Horrela, eskola haiek gauzatu zuten nire ofizioa eta bizimodua. •



Orain dela ez urte asko, adimen urriko haurrek bigarren hizkuntza ikastea ezinezkoa zutela uste zen.

# Reggio Emilia, Italiako haur eskolak ezagutzeko bidaia

2006ko urriaren  
11tik 15era



Informazioa eta izena ematea:

[www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)

Epea: maiatzak 12

hh  
hik hasi

# hh udako hik hasi topaketak

2006 ko UDA



**Donostian**  
Uztailak 4, 5 eta 6

Goizez  
9:00 - 14:00  
Arratsaldez  
16:00 - 18:30

1. Heziketa sortzaileak
2. Ahozkotasuna
3. Begirada Islamari
4. Historia irakaskuntzan
5. Nola landu elkarbizitza
6. Familia eta eskola
7. Ikas-estiloak eta ikas-estrategiak
8. Dibortzioa eta eskola
9. Harremanak gelan
10. Adimen emozionala
11. Coaching
12. Heriotza heziketan
13. Ordenagailu gelara?
14. Publisher
15. Photoshop
16. Linux
17. Neobook sakontzen
18. Blogak irakaskuntzan
19. Bideoa
20. Literaturatik zinemara
21. Idazketaren didaktikarantz
22. Ipuinak irakurri-kontatu
23. Disgrafiaren tratamendua
24. Txillida
25. Antzerki klown-a
26. Antzerkia
27. Psikomotrizitatea
28. Psikomotrizitatea gimnasioan
29. Jolas kooperatiboak
30. Birziklatuz sortu
31. Musika Hezkuntza Berezian
32. Musikoterapia
33. Biodantza
34. Dantza afrikarra
35. Haurrentzako masajea
36. Miramongo Zientzia-Museoa

**Tel: 943 371 408    [www.hikhasi.com](http://www.hikhasi.com)    Matrikula epea: maiatzak 26**